

PABLO ZUBIARRAIN
«Ernani txikia»



IA KANTATUZ BEZELA

IA KANTATUZ BEZELA

AUSPOA LIBURUTEGIA

190

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)
Plaza Santa Maria, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

PABLO ZUBIARRAIN
«ERNANI TXIKIA»

IA KANTATUZ BEZELA

AUSPOA LIBURUTEGIA
1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Gipúzcoa)
Fotokonposatzalle: LENTE Estella
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
Depósito Legal: NA. 1.602-1985
ISBN 84 - 7158 - 136 - 1

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Adarra mendiko ardi-bordari	15
Ama	29
Aitonaren azken besarkada	33
Txirrita zana	37
Pikoa	41
Urumea nere ballara	45
Sagardoa	49
Teruel'go bertsoak	53
Lengusu bati	57
Roman Zugasti eiztariari	61
Ondorenak	65
Aiton baten pentsakerak	68
Urbasa'ko artzai baten esanak	71
Garate pelotaria zanari	75
Astoa ostu zioten baten arrankurak .	78
Elurtea	81
Ameriketako artzai baten kezak ...	84
Arizkun'go Jaime Larralde pelotariari	87
Kontzientziari	91

Urepele'ko artzai zanari	95
Amerikatik etorritako donostiarra ...	98
Igeldo'ko arroketan	101
Ez asto ta ez kotxe	105
Israel ta arabeak	109
Usoak	113
Maitasuna	116
Aizea	119
Xalbador zana	123
Azeria	127
Krisisa	130
Uztapide zana	133
Bizi bearra	137
Zerri iltzea	140
Retegi'tarrak	143
Martin Berasategi zanari	147
Droga	150
Bi nagusi	153
Gure mendi maiteak	157
Arrantzaleak	160
Gaurko mundua	163
Arantzazu'ko Amari	167

ITZAURREA

Bertsotan nola asi nintzan? Mutil koxkorretan ere afizio izugarria nik. Aitak ere bazuen, da beste danak ere bai gure etxean. Orain ere, anaiak geienak aritzen dira.

Etxean bertso asko zan: bertso-paperak-eta. Orain ez dakit nun izango diran. Orregatik, bertso berriak kantatzen ziran gurean, geok asmatuta, ta lengo zarrak ere bai.

Pedro Maria Otaño'k Ameriketatik bialdutako lendabiziko liburuak, *Alkar* eta *Zerbait*, Txirritari ta gure aitonari bialdu zizkien, bere firma ta guzi.

Otaño'rekin bertsotan aritu ere bai aitona gurea. Bertsolaria zan, ba. Baita aitonaren anaia ere. Plazetan kantatzen zutenak. Txirritak esaten du:

Joxe Migel ta Erramun illak,
ni ta Juan Mari biziak...

Joxe Migel ori gure aitona zan, nere amaren aita. Eta Juan Mari, Altzea'ko itxua, Goiatz-txiki'n itxututa egon zan ura, gure aitonaren anaia. Otxotorena zuten apellidua.

Gure jaiotetxea, Telleria baserria, orain botea dago. Epele'n zegoen, *Floriclora* fabrika baiño pixka-pixka bat lentxeago, Ernani'tik Ereñotzu'ra goazela. Erreka txiki bat baserriaren azpiko aldean, ta gero Urumea ibaia.

Ni Telleri ortan jaio nintzan, 1912 urtean, Urriaren 26'an. Sei anai ta bi arreba, zortzi senide izan giñan. Orain bi illak ditugu: arreba bat eta anai bat.

Gure anai difuntu arek oso ondo egiten zuen bertsoan. Arrazoi zorrotzak eta bai ederrak. Manuel zuen izena.

Orain il da Julian Barrenetxea, Ernani'koa bera. Orrek, gau batean, oietik sumatu zuen, goizeko ordubietan:

– Zein dek or bertsoan ari dan ori?

Jeiki oietik eta leiotik aren bertsoak aditzera.

Portu, Ernani'ko barrio txiki bat da, eta ango festak ziran. Ta gure anai ori parrandan, gaztea zan baiña.

Julian Barrenetxea orrek ere esan izan zidan:

– Zure anaiak Karabel'en kantatzen



Pablo Zubiarrain bertsotan Donamaria'n, gerra ondoko urteetan.

zuen ere, kaletik, gure etxetik, aditzen genduen. Arek zuen eztarria, arek!

Biok aritzen giñan bertsoan. Aitak janariak egitera bialdu mendira, ta jarri biok sagar baten azpian. Ni ordurako pixka bat asia plazetan Txirritarrekin-da, ta malizia geixeago. Baiña arek etorri izugarria zuen. Biok, jo ta *fuego*, igual ordubeteko saioa. Ta janariak egiteko, ta gero larri, aita erritan asten zanean.

Oso mutil ederra zan nere anai ori. Altua ta zabala. Bikaiña mutilla.

Gerra etorri zanean, gaixotu egin zan. Eraman da operatu zuten. Ta geiago ondo jarri ez. Esteetan *tumor* bat-edo omen zeukan.

Ustez kendu zioten kontua, ta mediku batek esan omen zion besteari:

– *¡Qué mocetón! Pero ¡qué pena! No se le puede hacer nada.*

Ta berak dana aditu, kontua kentzen ere zaila izango zan gaiñera ura-ta.

Aita etorri zanean, ala esan omen zion:

– Aita!

– Zer?

– Eraman ni etxera.

– Emen obeto egongo zera.

– Ez, ez. Au ta au aditu diot nik medikuari, ta ni eraman etxera, il bear det-eta.

Eraman zuten etxera ta an il zan.

Ni mutil koxkorra nintzala, Urumea inguru ortan, ia danak bertsoan aritzen ziran, tabernara joan ezker. Afizio izugarria zan. Orduan barrio alaia zan gurea. Gabean, goiz aldera arte, sagardotegian kantari. Beste mundu bat, beste sanidade bat, beste gauza bat.

Orain politikara geiago jotzen da, ta baikoitzak bere aldera. Beste tankera bateko mundu-klase bat dator.

Garai artan asko tabernan bertsolari; baiña plazetarako bertakorik etzan. Txirrita, Saiburu, Prantzes-Txikia ta oiek etortzen ziran.

Txirrita ta Prantxesak, txarrean asita, ikaragarriak esaten zizkioten alkarri.

Etzait bertso dana gogoratzen; baiña Prantxesari Txirritak onela bota zion batean:

Aspertutzen e asia nago
zure moduko prendakin,
erle gorriak eldu badizu
igurtzi zazu mendakin.

Bertsolari onak ziran aiek. Ia buelta ematen uzten etzuten oietakoak.

Beste bertsolari bat, nik ez nuen eza-gutu, baiña ona, Artzai Txikia omen zan.

Batean, Astigarraga'ko guarda zanak

kontatu zidanez, Donostia'n-edo, kuadrilla bat ari omen zan:

- Txirrita ohea dek.
- Ez. Artzai Txikia ohea dek.

Ta Astigarraga'ko sagardotegi batean egin omen zuten: bost juez alde batetik eta beste bost bestetik. Upel banaren gainean jarri sillak eta bertsolariak an exeri. Iruna saio egin omen zituzten; saio luzeak. Ez bertso bat edo bi. Ta danak konbentzitura geratu omen ziran: Artzaia zuzenagoa ta ohea zala.

Gero, badakizu, tabernara edo sagardotegira joaten ere asi giñan, ta ari egiten giñan bertsotan-da an.

Ernani'n bazan orduan, Joxe Goiarro esaten zioten guarda bat. Ta arek nunbait ere gu bertsotan aditu ta onela esan zidan:

- Ola ta ola bertsotara joan bear dezute, Ereñotzu'ko festetan.

Joxe Oiarbide zan bestea; Joxe *Ttantua* esaten diotena. Ori ere pixka bat aritzen zan, ba.

Ura ta biak izan giñan. Txirrita ta Sai-buru ekartzen zituzten orduan, ta aiekin kantatu genduen. Ori izan zan nere lenda-biziko asiera plazetan.

Neronek ez nekien zenbat urte nituen orduan, ta gero orrek esan zidan, Joxe Oiarbide'k:

– Nik onenbeste urte nizkin, ta diferentzi au diagu, ta ik amazazpi bear ituken izan.

Orduan asi ta gero batean ta bestean ta bestean... Erruz ibilli nintzan bolara batean. Txirritarekin ere bai. Nerekin ondo itzegin ta ondo aritzen zan, gazteari lagun-
duz.

Eztarri ona zuen arek. Boza fuertea. Plaza guztian aditzen zan arek kantatzen zuena.

Gero, ordea, gerra etorri zan. Ederki aztu ziran orduan bertsoak. Aztu bearko.

Bukatu zanean, berriz ere asi giñan. Mitxelena'rekin ibilli nintzan asko. Zepai'-



Donosti'ko *La Perla*'n: Exerita, ezkerretik: Pepe Andoain, Pepito Yantzi, Felix Arantzabal, Mateo Andoain. Zutik, lenengo illeran, ezkerretik: Pablo Zubiarrain, Mitxelena, Basarri, Uztapide, Amasa'ko Garate txistularia. Atzean, ezkerretik: Billabona'ko Sorondo bertsolaria, Juanito Atxukarro ta Benantzio Rekalde.

rekin ere bai. Txapelekin ere bai, Zaldibi'n-da. Uztapiderekin, berriz, zer esanik ez. Basarrirekin ere bai zenbait lekutan.

Baiña ez orain bezela ibillita: artu kotxea ta aide. Olako erreztasunik etzegoen orduan. Istori bat nai nuke orain kontatu.

Joan giñan bein Lekunberri'ra Uztapide ta biak bertsotara.

Andik laister, Arruitz'en badaude usotarako tokiak jarriak, lurpean zuloa egin ta mirillarekin, ta eizera joateko gonbidatu egin ginduen, Mugiro'ko bentetan errerote-gia zan eta ango erreroak: Perikok. Eiztari amorratua zan.

Gu txabola artan geundela, Aldatz'ko apaiza etorri zan, kaño bateko eskupeta aundi batekin. Zaarra zan ordurako. Goizean bostetan meza ematen zuen eiztariantzako. Sartu zan txabolara ta nik esan nion Uztapideri:

– Au apaizen bat izango dek.

– Zer izan bear dik apaiza, iltzezko botakin da galtza urdiñakin!

Baiña ala izan. Kontuak esaten aritu giñan; ta, uso gutxi zetorren tarte batean, buelta bat emango al genduen esan zuten.

Atera giñan ta zugaizti bikaiñak nunai an. Apaiz ori ta Periko erreroa aurretik ziran, ta atzetik Uztapide ta ni. Aiek biak alkarrekin ta gu alkarrekin, kontuak esanez, pago tartean. Uztapidek esan zidan:

– Neska gazte ederrai begira ere gus-tora egoten gaituk. Baiña ni arbol ederrai ere bai, basoan pasea nauk gazte denbora guztia-ta.

Alako batean, etorri zan uso-banda bat ikagarria, arri-erasoa bezelako soiñua ze-karrela, bi milla baiño geiago izango zi-ran-da.

Gorde giñan gu pagoen ondoan, ta beste biak ere bai. Ta usoak an, zugaitz-muturretan, danak bete-bete, pago guztiak urdin-urdin.

Apaiz orrek ez omen zuen bein ere usorik iltzen, ta lagunari esan omen zion:

– Biak batean tira egin bear zioagu.

Tira dute: *danba!* Baiña Periko orri surik artu ez kartutxoak. Disparatu ez. Ta iru uso goitik bera.

Apaizak artu ditu iru usoak. Berak illak ziran irurak, baiña onela dio:

– To! To bi iretzat, irurak ere ik illak izango dituk baiña. Nik bat naikoa diat.

Gero, txabolan, bertsolariak giñala jakin zuen apaiz orrek eta kantatzeko.

Orixe edukitzen det pena nik: asi giñan ta egun artan txabolan guk bota genitue-nak, ez zinta batean egon bearra. Saio lu-zea ta oso ona egin genduen. Berak esan zuen, Uztapidek:

– Gaur bertsoan arituko giñan orratik!

Apaiz arek edozer gauza. Guk ere bai,

baña trago ardo ederrak egiten zituen. Artzai bat bezelakoa zan. Meza eman ta eizean ibiltzen zana. Bai gizon jatorra! Lasaiago bizi zan, bai, ura, beste zenbait apaiz baiño.

Beste batean, Beruete'n izan giñan Zepai ta biak. Iru egun pasa genituen bertso-tan.

Beruete'n zapateroa zan. Lendik ezaguna nuen nik ura. Arek, gu an egon giñan egunetan, egunero ekarri zuen erbi bat. Erbi asko zan orduan.

Egunero gonbidatzen ginduen bazkaltzera. Ta guk, egunero agindu ta bein ere joan ez. Parranda egiten baigenduen. Goiz aldera oiera joan, ta goizean jeikitze-ko gogorik ez. Berandu jeikitzen giñan, ta gero mendira.

Zelebrea baitzan gaiñera Zepai. Amaika par arekin egiten nuen nik.

Kontuak egin genituenean, etxera etorri bear, ba, noizbait ere; ta orduan, len esan dedanez, etzegoen gaur bezelako konbentientzirik. Joateko ere gaizki ta etortzeko ere bai. Beruete'tik Lekunberri'ra oiñez etorri bear genduen. Ta erakutsi ziguten:

– Mendi artan gora igo xuxen-xuxen. Goiko kaxko artara irixten zeratenean, andik Aldatz aldea ederki ikusiko dezute. Segi orduan aurrera. Bidea billatuko dezute ta ongi aterako zerate.

Mendi artan gora igo gera ta an pago bat ikaragarria, legun-leguna. Begira egon giñan puska batean:

– Ori dek arbola, ori!

– Bai, motell! Azitzen dituk mundu on-tan ederrak!

Bidea ondo arrapatu genduen, ta Lekunberri'ra ederki allegatu giñan.

Beste batean, Ultzama'n giñan, Alkotz'en.

Mutuberria bertsolaria zan angoa. Ze-pairen estiloko bertsolari-klasea. Bera ta apaiz bat ziran an euskaltzale amorratuak, beti beren euskera orrekin ari ziranak.

Nik esan nion:



Pablo Zubiarrain eta Uztapide bertsolariak.

– Zu orren destakatua ibillita, utzi zinduten, ba, bizirik, gerra etorri zanean. Atera ziñan, ba!

Ta onela esan zidan, ango izkeran:

– Bai. Emen aunitz karlista da. Baiña jende sanoa. Iñori etzioten deus ere egin.

Inguru artan etzala ezer ere pasatu; Ultzama oso jator portatu zala esan zigun.

Naparroa'n asko ibilli nintzan ni. Arizkun'a bastante urtetan joan nintzan. Larralde pelotaria an ezagutu nuen. Zugarramurdi'ra ere bai. Berastegi'tik joanda, Leitza, Ezkurra, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Donamaria, Doneztebe, Arraiotz, Mugaire ta danetan. Geiena ni an ibilli nintzan.

Gustora joaten giñan Naparroa'ra. Bertsolarientzat toki ona da ura. Orduan beintzat ala zan. Gogoaz zeukaten bertsoa entzuteko, ta bertsolariari ere ori gustatu egiten zaio. Ezkurra'n ta oietan, bertsotan gustora ari bai.

Astakeriren batzuk botako genituen. Dudik ez dago. Batek bere buruari esaten badio: «Emen errespetoarekin kantatu bear dik», ez. Baiña ajolik gabe ari dan toki batean? Ez gaiñera etortzen burura artara ari danik. Ondo ari dala iruditzen. Ta gu eskola artara oitu giñan-da...

Gipuzkoa'n ere ibilli nintzan. Asko gaiñera. Bai premioetan ere.

la orain denbora gutxi arte kantatu det plazetan. Orain amar bat urte edo ola geratu.

Baiña bertsorik ez det orain arte pape-rean jarri. Ezta bein ere burura etorri. Ez nuen jarriko ere nik bertsorik sekulan.

Baiña orain bi-iru urte, txerria iltzera etzi joan bear dedan anai orrek, Joxe Mari, Lexotiren koñadua, Epeleko Borda-berri'n bizi danak, onela esan zidan:

– Ez al dek bein ere bertso-aldi bat edo zerbait jarri bear, señaleara uzteko bertsolaria izan aizela? Jar itzik, motell; besterik ez bada, Adarra mendiko bordari.

Ta uraxe buruan artu ta artantxetik asi. Bestela, nik ez nuen bertsorik jarriko.



Pablo Zubiarrain, Ernani'n, bertsolari gazteen txapelketan, bertso-pare bat kantatzen.

Orain, berriz, orixe ari naiz pentsatzen: zapateriko traste zar oiek danak saldu, badaukat erostuna gaiñera, mutil gazte bat, ofizioa ikasi nai du-ta. Ta, urte asko ez baidauzkat nik mundu ontan bizitzeko, irurogei ta amalaugarren urtean banoa-ta, ortan bakarrik ariko nintzake: bertso jartzen.

Mendi zoko batean dago gure beste anai baten etxea: Labezarreta. An bakar-bakarrik jarri, goizean jeiki ta antxe, beste gauzik buruan ez daukatala.

Beste gauz oiek burua nastu egiten baitute. Pentsamentua zeratu egiten, ta egunak joaten zaizkizu bertsoa zer dan gogoratu ere gabe.

Xalbador zana asarretu egiten omen zan, ola pentsatzen zegoela, norbait beste zera batekin etorrira. Neroni ere pasa zait ori. Gauzak burura etortzen ari diran garaian, bat edo bat agertu, gonbertsazioa sartu ta amorrazi.

Nekatu ere egin bear da burua, bertso onak jarriko badira. Xalbadorrek ere burua asko nekatuko zuen, jarri zituenak jartzeko. Bertso ona *tarratata* etorriko zaion bertsolaririk ez dago.

Ondo-ondo jarri nai badira, bertsoari poesia pixka bat atera nai bazaio, asko pentsatu bear da. Bertsoa asko aldiz kantatu ta ondo borobildu.

Ni orain arte ez nintzan ortaz konturatu.

Orregatik, berriz ere jartzen baldin baditut, obeto begiratuta jarriko ditut:

– Au etziok ondo. Onek kendu egin bear dik...

Auek, berriz, jartzen nituela ta dana ona iruditzen zitzaidan jartzen nuen guztia. Bertsoa burura etorri bezela eskribitu, ezer ere begiratu gabe, lengo oitura zan bezela, ia kantatuz bezela.

(Pablo Zubiarrain'ek esan eta magnetofonoz jasoetatik, A. Z. 'k papereratua.)

ADARRA MENDIKO
ARDI-BORDARI

- 1/ Gaur eztaukazu lengo itxurik,
Adarra mendi laztana,
beor, betizu ta ardientzat
izaten zenduen jana.
Garai batean artzai gaixoen
paradisua ziñana,
orain sasiak eta piñuak
tapatuta zaude dana.
- 2/ Mendi ortantxe artaldetxo bat
guk e izaten genduan,
gazte denbora an pasea naiz
ni aitonaren onduan,
leku oberik zanikan ere
oroitu gabe munduan,
ta gero ere askotaz obe
bertan jarraitu banuan.

3/ Nik banekien etzala ura
pitxiz jantzitako fonda,
gure aitonak bere ardiak
gordetzen zituen borda.
Baiñan alare artzaiarentzat
leku obegoa nor da?
Zeiñen gutxitan ikusten degun
orren aldean egonda!

4/ Ardi-bordaren ondo-ondoan
izaten gendun kamaiña,
mendi artako txillarrarekin
bai etzan-leku bikaiña.
Geroztikan oi eder askotan
lo egin izan det, baiña
nere gorputzak ezin gozatu
izaten zuen an aiña.

5/ Goizean jeiki, ardiak jeitzi
ta bialdu barrutira,
gerok ere an ibiltzen giñan
joan gabe urrutira.
Aitona beti errezatutzen
zeru aldera begira,
gure izkuntza maitagarriak
zaiñak dituen tokira.

6/ Mendi maitea, eman ziguzun
naiko gazta ta zeziña,
gaur eztaukazu beñterik ezer:
piñua eta zikiña.
Ardien borda untzak tapatu,
jira guztian osiña,
aitona, laister ilko ziñake
berriz piztuko baziña.

7/ Txabolatikan bertan geneukan
iturri baten txokuan,
txantxangorriak bere kabia
urtero egiten zuan.
Ekaitz-aldiak pasako zitun
borda zarraren barruan,
eta guk ere txori polit oi
maite izaten genduan.

8/ Ain izanikan umilla eta
on egiten ikasia,
kabi zar artan kuku askori
beren umeak azia.
Gure Jainkoak eman zion da
izandu zuen grazia,
mendi artantxe pasatzekoa
bere munduko bizia.

9/ Goizean beti lenengo otoitza
zeruetako Aitari,
txabol ondoko pago gaiñean
txori gaixoa kantari.
Eta gu ere pozez entzuten
egoten giñan berari,
orduan etzan mendi zar artan
kalean aiña azari.

10/ Aldegin zuten elur guztiak,
jelak eta aize otza,
udaberrian sartu giñan da
ura zan ardien poza!
Danak marraka eskertzen zuten
eguzkiaren etortza,
igo zitezen mendietara
artzaia eta bildotsa.

AMA

- 1/ Ama leial asko bat
banun nik munduan,
aretxek azia naiz
aitaren onduan.
Baiñan lagun txar batek
okertu ninduan,
geiago zuzenduko
ez naizen moduan.

- 2/ Gaixoak gugatikan
egin zitun lanak,
gurasoai zorretan
gaude seme danak.
Estutuaz ematen
zizkidan laztanak,
ainbeste maitatuaz
azi nindun amak.

- 3/ Zenbat balio duen
ama izateak!
Azi ginduen mimo
danakin beteak.
Geiegiak ekarri
zizkidan kalteak,
naiz on-ustean egin
guraso maiteak.
- 4/ Dirua nuen arte
banitun lagunak,
eleganteak eta
mingaiñez legunak.
Naiz orain akordatu
orduko egunak,
falta dira lenago
gasta genitunak.
- 5/ Lagun asko nituen
da on-ustekoak,
aitu ziran artean
nere poltsakoak.
Fariseo galantak
disimulukoak,
gaurko munduan asko
dauden modukoak.

6/ Lagundu zidatenak
dirua gastatzen,
gaixotu nintzanean
etziran azaltzen.
Baiñan ama gaixoak
etzuen faltatzen,
artxek lagundu zidan
bizia salbatzen.

7/ Seme bat zenbat maite
duen gurasuak,
ezin jakin gertatu
artean kasuak.
Len ere artu izan
nituen musuak,
ez amarenak bezin
piñak ta gozuak.

8/ Gaztea nintzan arte
ezin konturatu
amari faltatzea
nola dan pekatu.
Nik okerrak egin da
ark danak tapatu,
sufritu-azi nion
naiz gero penatu.

9/ Jaunaren agindua
zuk bete zenduan,
Ark dotriñan jarrita
dadukan moduan.
Semerik zabarrena
ni izan munduan,
ala ere geiena
maitatzen ninduan.

AITONAREN AZKEN BESARKADA

- 1/ Eguzki onek berotutzean,
pago azpiko itzala
amaika aldiz artua nago,
mutil koxkorra nintzala.
Plako-plakoa egoten nintzan
ezurra eta azala,
ardi-kontuan mendi artantxe,
aitona ondoan zala.

- 2/ Negu aurretik udara azkena,
etortzen ziran usoak,
banda galantak, urdin-urdiñak,
danak betean basoak.
Aitonarekin piztientzako
jartzen nituen lazoak,
orduan asko nekatu gabe
ematen nitun pausoak.

3/ Mendian zeuden gure ardiak,
borda zar bat bizi-toki,
aitona antxen illobari on
nundikan egingo beti.
Zait da jakiten zenbat zor zaion
alako guraso bati,
bere ondoan azi zan batek
nola ez gogoan eduki?

4/ Goserikan ez gendun pasatzen,
beti otordu jakiña:
talo ta esnea nai aiña eta
ardi zarraren zeziña,
orain ainbeste beneno gabe
etxeko janari fiña;
katillua're egurrezkoa
gure aitonak egiña.

5/ Zori gaiztoan iritxi ziran
neretzat amalau urte,
aiton arek min zuela baiña
kalera ekarri naute.
«Zuretzat lana eskatu degu
eta emango dizute.»
Amar erreal izango dala
soldata agindu dute.

6/ Beartsuaren lan-toki artan
ez baitzegoen besterik,
ez gendun izan orain bezela
guk eskola ikasterik.
Sosak bear ta etzegen ura
edozein moduz uzterik,
izardituta ogia jaten
ikasia naiz gazterik.

7/ Amasei urte nituenean,
fabrikan ari nintzala,
amaika aldiz akordatua
pago azpiko itzala.
Aitonak beti esaten zidan
kalea gerra bat zala,
mendian dauden artzai maiteak
Jainkoak gorde ditzala.

8/ «Kalean saltsa dago ugari,
emen daukazu pakea.»
Gizarajoak min zuen arek
ni menditikan joatea.
«Nere esanak gogoan ondo
artu, illoba maitea,
aitona emen geldituko da
ta maiz etorri zaitea.»

9/ Besarkadatu ninduenean
negarrez asi giñaden,
ta esan zidan: «Ez gero aztu
zein uzten dezun gaur emen.»
Jakin nai nuke zer ote zegon
artzai zarraren barrenen;
gizarajoa joan zan mundutik
sei illabete baiño len.

10/ Egun goxoak pasea nintzan
ni aitonaren onduan,
etzan guraso obeagorik
asko izango munduan.
Ondo badakit, biotzetikan
oso maitea ninduan,
ara zer itzak esan zizkidan
eriotzako orduan:

11/ «Biok ederki ibiltzen giñan
ni aiton da zu mutiko,
ta banekien zu joan ezkeru
ni ez nintzala biziko.
Zu emen egon izan baziñan
oraindik ez nintzan ilko.»
Besarkadatu nindun berriz e,
baziñan orduan betiko.

TXIRRITA ZANA

- 1/ Bertso batzuek jartzera noa
gure Txirrita zanari,
zor ori eta aundiagoa
diotelako berari.
Ura izan zan lendabiziko
lan ontan nere gidari,
errespetua zeñek ez izan
alako maixu zarrari?

- 2/ Buruz azkarra genduen oso
ta dana bertsoz betea,
azken arnasa etorri arte
amaika eder botea.
Bere doaia izandu zuen
umorea ta pakea,
geienak pena izandu zuten
ura emendik joatea.

3/ Zer ikasia badaukagu guk
Joxe Manuel zanari,
bera izaten genduelako
gure gogoen janari.
Baiña gazteak giñaden eta
ez aitortutzen berari
zenbat zor zaion ainbeste gauza
ikasi genizkanari.

4/ Maixu aundi bat izandu ziñan
eta biotzez gozoa,
Latxe'n an dago iduritxo bat
bere izenez jaso.
Urumea'ri arraia aiña
sortzen zitzaion bertsoa,
bere omenez antxen pasatu
genduen egun osoa.

5/ Lengo batean amets egin det
nik, erdi lotan nengola,
egia dala jarri zait eta
ezin det aztu iñola:
oraindik ere iruditzen zait
gure artean dagola,
gu aren adar batzuek gera,
ura zan gure arbola.

6/ Askotan esan izandu zidan
Txirrita gure artzaiak,
barrio gutxi zirala oso
gurea bezin alaiak.
Orduan etzan iñor berexten,
danok giñaden anaiak,
baiña joan ziran Txirrita gazte
izan zaneko garaiak.

7/ Lasaiena noiz bizitu giñan
jarri gaitezen pentsatzen,
dirurik etzan izaten baiña
goserik etzan pasatzen.
Iritxi gera kilo bat xerra
milla pezeta pagatzen,
gaur kostako zan Txirrita zana
jornal batetik osatzen.

8/ Garai batean au ikustea
nork pentsatuko genduan?
Kilo angula iru pezetan
errex billatzen zenduan.
Bixigua ta legatza berriz
erdi debalde moduan,
gaur ezin diran mokadu goxo
asko jaten zan orduan.

9/ Begira pozez egon izan naiz
bruxadun zenbait aitoni,
orduan dana pakea baitzan,
maitasuna ta armoni.
Txirrita sortutako erria,
zuri begira nago ni,
izena bera daukazu baiñan
etzera lengo Ernani.

PIKOA

- 1/ Arrobi baten ondoan bazan
arbol aundi bat pikoa,
amaika xoxo, txori gaixo ta
erle mantendutakoa.
Aleak eltzen zitzaizkanean
sartuta beren mokoia,
barrenen zuen azi artatik
jaten zioten naikoa.

- 2/ Alde batetik arkaitza zuen,
beste aldetik sasia,
erdi-erdian piko arbola,
ez landare itxusia.
Ustez txorien babes-lekua
ta jan-toki berezia,
baiñan amaikak zu ziñalako
or utzi zuen bizia.

3/ Urte askoan iraun zenduen,
ona izan ziñan oso,
fruta ortatik egiñak ziran
amaika otordu gozo.
Gizentzen ari ziñan garaian
ainbeste txori ta zozo,
zedorrek ere artzen zenitun
amaika perdigonazo.

4/ Sasoia zuen arte zenbati
eman ote zion jaten?
Baiñan gaur ezta txori gaixo ta
erlerik aruntz juaten.
Zu bein igartu ziñadenean
aiek e aldegin zuten,
jakin nai nuke gaixoak orain
zer penak ote dauzkaten.

5/ Arrigarrizko arbola ziñan
sasoia zenduenean,
ta batez ere ale ta ostoz
berdetzen ziñadenean.
Zure itzala atsegiña zan
berorik aundienean,
zenbatek egin ote zuen lo
zure adarren gaiñean?

- 6/ Len esan dedan arbol zar ori
ez omen zan aldatua,
noiz eta nola etzekitela
mirari batez sortua.
Arrigarrizko ale-mordoak
geroztik emandakua,
mendi artako pizti guztiak
izan zuten maitatua.
- 7/ Eguna argitzen noiz asiko zai
danak zugana joateko,
gaur ere antxe baldin bazeunde
aiek etzuten kalteko.
Ezpaitzenden iñor berezi,
guztai eman jateko,
orrenbeste on egin zuen bat
nola etzuten maiteko?
- 8/ Geroztik ezin aztu zaitugun
arbola maitagarria,
zenbati kendu ote zizkazun
gosea ta egarria?
Orain igartu egin zaizkizu
adarrak eta gerria,
lurrean zaiña bizirik dago
ta sortuko da berria.

9/ Mututu ziran txorien kantak
ta arbola dago illa,
gaixoak orain al dan bezela
or dabiltz jatena billa.
Udaberriak zain ortatikan
aterako du muskilla,
len izandu zan bezelakoxe
arbola izan dedilla.

10/ Piko zar orri oroimengarri
jarri dizkiot bertsoak,
aleak asko eman zituen
eta gaiñera gozoak.
Fruta ortatik naikoa janez
kantatzen zuten xoxoak,
jakin nai nuke orain bizirik
ote dabiltzan gaixoak.

URUMEA NERE BALLARA

- 1/ Gaur ere poza ematen dida
Urumea'ren izenak,
txoko oi ondo maitatzen degu
bertan jaio giñadenak.
Ni ere ortxe pasea bainaiz
ordurikan goxoenak,
zutik munduan nabillen arte
aztuko etzaizkitenak.

- 2/ Ni mutikoa nintzan garaiko
gauzak daukazkit goguan,
barrio ortan urte batzuek
onak pasatu nituan.
Gaur ez daukagun pake santua
genduelako orduan,
zu bezelako parajerikan
ez da neretzat munduan.

- 3/ Emaztearen naia zalako
orain bizi naiz Lasarte'n,
baiña neretzat obeko nuen
ez banu emendik erten.
Egun batzuek pasa ezkerro
biotza asten zait esaten:
Zoaz aruntza, maite dezula
anaiak jakin dezaten.
- 4/ Udaberriko goiz alaietan
eguzkiak berotzean,
kukuen kantak basoan eta
kukuka ibai-ertzean.
Sortu nintzaden txoko ortara
joaten naizen bakoitzean,
bestetan ezin detan gauza bat
sentitzen det biotzean.
- 5/ Urumea da ibaia eta
bi aldetatik mendia,
kristauarentzat zail da aztutzen
bera jaio zan kabia.
Zu izan zera nere zerua,
zuri zor dizut bizia,
ez daukat penik barrio ortan
jaioa eta azia.

6/ Dana lantokiz bete zaituzte,
-batzuentzako zer poza!-,
gero pillaka etorri zedin
kanpoko jende arrotza.
Lenago danak euskeraz eta
gaur berriz erdera utsa,
orretxengatik dago mindua
erri zar onen biotza.

7/ Mundu ontatik joanak ditut
lagunik maitatuenak,
egunak joan da etorri arren
aztu ezin litezkenak,
aiekin pasa baintuen nik
urterikan ederrenak,
bate neroni oroitu gabe
iges egin didatenak.

8/ Oraindik ere gogoan dauzkat
orduko egun goxoak,
Urumea'ko mendietan guk
ematen giñun pausoak:
Epele-errekan ollagorrak il,
Azketa'n berriz usoak,
jaio zirala beste errurik
etzuten txori gaixoak.

9/ Orain ainbeste azkartasun da
orain ainbeste talentu,
alare danâk asarre gabiltz,
iñor ez gaude kontentu.
Kukuak dira mututu eta
eizak mendian gastatu,
beldur dirade munduak laister
bear duela bukatu.

SAGARDOA

- 1/ Lenengo arbolak izan bear du
paradisuan sortua,
Adan da Ebak andik jatea
zeukaten debekatua,
gure Jainkoak euskaldunentzat
zeukalako aldatua,
gero sagardo biurtu zedin
ematen zuen frutua.

- 2/ Azi artatik sortu ziraden
lur ontako sagastiak,
guraso zarrak ondiatuta
lenago zeuden sasiak.
Bi arbol-klase jarri zituzten,
dira geza ta gaziak,
aien zumoa edan zezaten
euskaldun seme guziak.

3/ Donostia'tik etortzen ziran
tranbe zar danak betean,
Astigarraga ta Ernani'ra
jendea garai batean.
Danak euskeraz kantatzen zuten
upel aundien tartean,
orain dagoen aiña kanpotar
ez baitzegoen artean.

4/ Euskalerrria paradisotzat
bezela zegon munduan,
baserri danak sagardotegi
izaten ziran orduan.
Obe genduke gaur e bageunde
garai artako moduan,
aurrerapenak gure lurrera
ara zer ekarri duan.

5/ Sagardotegi maitagarriak,
joan ziñaten bukatzen,
kimikaz egindako ardoa
asi baitziran ekartzen.
Etxean degun gauzik onena
arrezkeroztik baztartzen,
euskaldunari gauza askotan
orixe zaigu gertatzen.

6/ Sagardotegi maitagarriak,
beti zaituztet goguan,
zuen barruan neguan antxe
egoten nintzan zeruan.
Zar eta gazte danak bildurik
upeltxoaren onduan,
bertsolariak ederki daki
zenbat gozaten genduan.

7/ Alez beteta dauden arbolak
zer poza ematen duten,
sagar-urte bat izugarria
nola gertatu dan aurten.
Len zokoetan zeuden upelak
apenas lanik daukaten
lengo urtetan egoten ziran
bezela utsik egoten.

8/ Garai batean baserrietan
ziran sagasti edarrak,
geientsuenak igartu dira,
tapatu zituen larrak.
Ondorengoak izandu gera
olako seme zabarrak,
au ikusita guraso aiek
eingo zituzten negarrak.

- 9/ Len garbi zeuden mendi guziak
asi ziraden beztutzen,
sagarra kendu eta piñua
asi zanean sartutzen.
Garai batean debalde zana
gaúr urrea pagatutzen,
ia iltzera ekarri degu,
baiñan asi da piztutzen.
- 10/ Aspaldi xamar asiak ziran
gu galdu naian etsaiak,
kale aldera bialdu-azten
mendian zeuden artzaiak.
Txarrenak orain droga zabaltzen
emen dabilzan izaiak,
zenbat beneno tragatu degu
Gipuzkoa ta Bizkaia'k?

TERUEL'GO BERTSOAK

Etorri zan gerra; ta ni, lenengo, alde batetik ibilli nintzan, Bizkai aldera joanda.

Baiña Bilbao artu baiño lenago, iru izkutatu giñan da etxe aldera abiatu. Beste aldera pasa. Bat, arrapatu ta il-edo egingo zuten. Ez da azaldu geiago. Bestea bizi da. Kalera jetxi ta an ibilli omen zan. Egun batzutan ez omen zion iñork ere kasorik egin. Gero arrapatu zuten.

Ni, berriz, illunabar aldean abitu ta gabaz ibiltzen nintzan. Lendabiziko, nere burua Legazpi'n ezagutu nuen Gipuzkoa'ko lurretan. An trenbidera jetxi ta Tolosa'raiño trenbideaz etorri. Ortik Uzturre mendira igo ta Amasa'ko atze ortan barrena etxera allegatu, zutik egoteko gauza ez nintzala.

Etxean ez dakit zenbat denboran egon nintzan gordeta, sagardo-upelaren barrenean. Ta gero:

– Nortea artu ditek eta gerra bukatu dek, motell!

Sinistatu ta azaldu nintzan. Bai besteak artu ta ostera gerrara eramán ere.

Teruel'go batallan an egon giñan, asi ta buka, elurretan da jeletan. Ederrak pasa genituen. Ordukoak dira bertso auk. Baiñan ez nik bakarrik jarriak.

Naparroa'ko Zubieta'koa, Joxe Bera esaten zioten bat bazan gurekin eta ura asi zan bertsoak jartzen. Nunbait ezin zituen ondo osatu ta neregana etorri zan, ea lagunduko nion. Orregatik arek zeratako edo asitako bertsoak dira. Pentsatzen asia, ta osatzen edo bukatzen nik lagundu.

Mordoska jarri genituen. Arek batzuren batzuk eskribitu zituen. Nik bat ere ez.

Joxe Bera ori, uste det oraindik biziko dala. Il danik ez det beintzat aditu.

Teruel'dik, Aragon guztia pasa ta kosta aldera, Castellón de la Plana edo orrera, atera giñan. Ebro'n ez giñan izan gu. Valencia aldean bai.

Gerra bukatuta, batean Zestua'n giñan Uztapide ta biok, bertsoara joanda, ta ango taberna batean bertso oiek kantatzen ari ziran. Onela esan nion Uztapideri:

– Ola ta ola guk jarriak dira bertso oiek.

– Bai zera!

– Bai. Zortziren bat baziran, eta orain burutik joanak.

- 1/ Milla urte pasa ta
bederatzireun, (*bis*)
aurten oi ta emezortzi,
garbi esan zagun.
Teruel'en bakarrik
ogei milla lagun
il eta erituak
illabete barrun;
eztakit zer biaje
atera biagun.

- 2/ Jela ta elurtea
zegon Ilbeltzian, (*bis*)
Naparro'ko Brigadak
sutan sartutzian.
Sanoak gaixotu ta
eriak il zian,
kontatuko ditugu
nork geren etxian
zer sufritu genduen,
au bukatutzian.

- 3/ Lastimagarria da
emen pasa dana, (*bis*)
lutoz jantzita daude
zenbait aita ta ama,
baita alargundu're
makiña bat dama;
soldaduak lan egin,
jefeentzat fama;
kondenatua dago
au sortu zuana.

4/ Gizon jakintsu oien
 inbentu aundiak: (*bis*)
 fusil eta mortero,
 tanke ta kañoiak,
 ta beldurgarrienak
 dira abioiak;
 oien azpian gaude
 urrikalgarriak,
 kulpik gabe etxetik
 iltzera ekarriak.

(Bertso auek kantatzeko doiñua, «Ai gure antziña-ko guraso nobleak...» bertsoena da. Ikus: *Auspoa*, 123-124-125, 136 orri-aldean.

Bertso biltzen asi nintzan artan, 1955 urtean, nai-ko ezagunak ziran, iñun inprentatu ez baziran ere. Lagun askoren aotik jaso nituen: Itziar'ko Prudentzio Egiguren «Artañola» zana; Igeldo'ko Leku-eder'ko Balentin Zamora; Azkoiti'ko Kuku-erri ballaran dagoan Larrume-aundi baserriko Martin Larrañaga zana; Azpeiti'ko Gorostieta baserriko Tomas Iturzaeta; artean ikasle zala, Segura'ko Aita Patxi Auzmendi zana...

Alkarren artean aldaketak badituzte; baiña lau bertso baiño geiago etzidan iñork ere eman.

Bearbada, auek eta Basarriren Gernika'ko bonbardeoarenak, 1936'ko gerrari jarritako bertsorik famatuenak izango dira.

Joxe Bera ori Irun'en bizi da orain. Bixitatu genduen. Baita bertso auetaz galdetu ere; bertso geiago ba ote zan. Ezetz esan zigun. Lau bertso zirala. Etzala geiago jartzeko modurik edo astirik izan. Ta lau oiek, or goien ezarri ditugun bezelatsu kantatu zituen.

Joxe Bera ta Pablo Zubiarrain *kamillero* ibilli ziran; eta gerra ezkeroztik alkar ikusi gabe zeuden. Bertso auek zirala-ta, alkarrenganako bidea ikasi zuten. Itzaspertu ederrik egiñak izango dira geroztik, leengo kontu zaarrak berrituz... A.Z.)

LENGUSU BATI

- 1/ Frantzia'n detan lengusu bati
jartzera noa bertsuak,
gerra ezkeru ikusi ez ta
eman zizkidan musuak.
Gogorak dira ari munduan
gertatutako kasuak,
sari au baiño zerbait ohea
merezi luke gaixuak.

- 2/ Gerra zala-ta Bizkai aldera
bere lenengo pausuak,
an ere arrapatu zituen
mingarrizko erasuak.
Bi anai ditu Intxorta'n illak
eta iru lengusuak,
beren odola eta bizia
an eman zuten gaixuak.

3/ Beren etxeko pake santuan
gozatzen bizi ziranak,
gerra txar batek fameli orri
ekarri zizkion lanak.
Lutoa eta gorroto txarrak
ontatikan datoz danak,
ta azkenean pagatutzen du
errurikan ez duanak.

4/ Euskalerrria garai batean
umoretsu ta lanean,
alkarrentzako errespetua
izaten genduenean.
Oraindik ere jarri gindezke
kristau bide zuzenean,
txar egiteko ainbeste griña
jarri ezkerro onean.

5/ Pakea maite izan balute
etzan egingo misilik,
zertan dabiltzan ez dakitela
zenbat ote dira illik?
Eztakigunok dana dakigu
ta dakitenak ixillik,
Satanas dago agintzen eta
besterik ez da abillik.

6/ Lau aur txikiren ama zan eta
ta zortzikoa zarrena,
lan egiteko bera bakarrik
ta falta bear zuena.
Aurak negarrez eta goseak:
«Ama, ekarri jatena.»
Emango baiñan ondoan falta
aiek eskatzen zutena.

7/ Lau aietatik bat il egin zan,
an egongo da zeruan,
gerra zalako il ziran beste
koitadu aien onduan.
Lepotik eldu amatxori ta
eriotzako orduan:
«Ama, nerekin atoz zu ere,
bakarrik ez det nai juan!»

8/ Asko bezela nola baitziran
gerraren iges joanak,
zer jantzirik ez ta jana falta,
an baziran naiko lanak.
Aurtxoa iltzen bere besoan
ta negarrez beste danak,
sufritutzea zer dan badaki
ura pasatu zuanak.

9/ «Geroztik nere ezpaiñetara
ezin da etorri parrik,
mingaiñak ere itzegiteko
eztauka lengo indarrik.
Begiak malkoz bustitzen dizkit
akordatzeak bakarrik,
ta erregutzen diot Jaunari
gerta ez dedien gerrik.»

ROMAN ZUGASTI EIZTARIARI

1/ Ain lagun detan eiztari bati
jartzera noa bertsoak.

Erdizka zertan ibilliko naiz?

Esango ditut osoak.

Mendietan erbiak

nun dauzkaten kabiak,

Romanek ara pausoak;

gero're andik urruti gabe

jarriko ditu lazoak.

2/ *Montte* ta *Linda* izan zituen

bi zakur arrigarriak,

nagusi onak erakutsi ta

eizean ala jarriak.

Buruz argi askoak,

usai apartekoak,

kolorez gorri-gorriak;

Romanek errez arrapatutzen

zitun aiekin erbiak.

- 3/ Eiztari onak asko ziraden
baiñan Roman nagusia,
piztiak nora artuko zuen
ondo zegon ikasia.
Otea edo larra,
naiz izan leku txarra,
pasako zuen sasia;
amaika erbi ta basurderi
kendu zenien bizia.
- 4/ Eguna argitzen asi orduko
aterako zan etxetik,
Montte ta *Linda* biak artu ta
lotuta soka batetik.
Bera paradan jarri,
zakurrak zaunkaz larri
erbi zarraren atzetik;
orduan zenbat gozatzen zuen
au berak bakarrik zekik.
- 5/ Nola ez dira malkoz bustiko
eiztari zarren begiak?
Nun dira garai artako pago,
zugaitz ta gaztañadiak?
Piñua ta sasiak
dauzka danak josiak,
bide guztiak itxiak;
erbi guztien bizilekua
artu dute azariak.

6/ Guk ere griña pixka bat bai ta
askotan giñan joaten,
gordeta jarri ta zugaitz-puntan
usoak ezkurra jaten.
Betik gora apunta,
naiz bakarren bat bota
laister aldegingo zuten;
orain eztira etortzen nola
piñu-arra maite ez duten.

7/ Txokolatea eta ogia,
ardoarekin zatua,
au izaten zan eiztari zarren
orduko alimentua.
Azkar igo mendia,
txiki edo aundia,
Romanek jarri puntua;
erbia nora joango zan azkar
ateratzen zun kontua.

8/ Roman ta Xanti biak montero
beren zakurrak artuta,
aik arrastuan jarri ezker
laister eingo zuten zaunka.
«Atera dik basauntza!
Bazetorrek onuntza!»
ta gu zai an makurtuta;
amaika aldiz egonak gaude
jatea ere aztuta.

9/ Ugaldetxo'ko taberna dute
eiztari oiek kuartela,
jai-goizetan an bilduko dira
aurretik esan bezela.
Andik mendira io
ixil eta serio
Frailia aurretik dutela;
Roman, i zerbait izan aiz, baiña
Xanti're ez dek motela.

ONDORENAK

- 1/ Berrogei urte iraun zituen
derriorrezko pakeak,
baiñan iriki zituzten noizbait
itxita zeuden atea.
Gizon batzuen ase eziñak
ekarritako kalteak,
orain pagatu bearko ditu
ederki erri maiteak.

- 2/ Aberats asko egin zan emen
urte batetik bestera,
saiatu ziran beartsuari
zumu guzia kentzera,
otso maltzurak ardi gaixoai
txupatzen dion antzera;
zer ondorena utzi dezuten
zeok kontuak atera.

3/ Naiz ondo jakin nazio dana
berak ondatu zutela,
zerbait esaten asten zanari
latigoa ta kartzela.
Baiñan otsoak orain ezin jan
len jaten zuten bezela,
bai-baitakite gaur eiztariak
ondo armatuak daudela.

4/ Gauza guztiak gora ta gora,
au da erriaren planta,
martxa onetan ezin liteke
urte askoan aguanta.
Emen eztago izaterikan
atzerrira eramanta,
otsoak ugaritzen dijoaz
baiñan orain jana falta.

5/ Berrogei urte pasa ondoren
kate astunen epoka,
libertadea artu orduko
danak alkarri mokoka.
Politikoak ere or dabiltz
bata besteai orroka,
zer janak aitu diran garaian
ia asian borroka.

6/ Aita Santua eta Eliza
asi dira kezkatutzen,
goitik agintzen dutenak ere
ez ote dabiltzan zuzen.
Asko duenak beartsuari
ezpadio lagundutzen,
alper-alperrik asiko gera
gu pakea eskatutzen.

7/ Urte-mordoa pasatu arren
nai dan guztia egiñez,
azkenerako egin izan du
geiegiak beti gaiñez.
Orain argatik etorri dira
txerrimuniak ordaiñez,
erria eztago engañatzerik
kontuarekin mingaiñez.

8/ Abusoari beré garaian
ez itxitzeak atea,
beldurgarriak dirade orain
emen dakartzkin kalteak.
Akabo errex irabazteak
eta kontutik jateak,
ezin bizia datorrenean
bukatzen dira pakeak.

AITON BATEN PENTSAKERAK

- 1/ Borda maitea, ez naiz joango
zuregandikan igesi,
azken urteak etorri arte
etziñuzteket nai utzi.
Mundu guztian leku oberik
ezin nezake berezi,
pake santua, txorien kantak,
zerua dirudi kasi,
kalean palazioan baiño
naiago det emen bizi.

- 2/ Negua joan da udaberria
berriz datorren orduan,
inperuari iges eginda
sartzen gerade zeruan.
Artzaiak pozik txistua joaz
beren ardien onduan...
Borda maitea, il arteraiño
izango zaitut goguan,
zu bezelako palaziorik
ez da neretzat munduan.

- 3/ Gau illun batez aize epela
dabillela inguruan,
ontza bakarrik larrean oiuz
zer arrapatuko duan.
Txoriak berriz ixil-ixilik
bearrezko duten luan,
eta ardiak danak etzanda
bordatxoaren barruan,
iñork ez daki artzaiak zenbat
gozatzen duen orduan.
- 4/ Askotan malkoz bustitzen dira
aitona onen bi begi:
ibai aundiak erre dituzte,
arrairik ez da ageri,
erriak gasez zikindu dira,
droga ta alkola ugari,
jendea berriz zer esanik ez
ugaritu da geiegi;
gazte maitea, atoz mendira
bizi nai badezu garbi.
- 5/ Noizbait kalera jeixten banaute
ez naiz luzaro biziko,
zartu gera ta il egin bear,
ez giñan sortu betiko.
Eta orduan, borda maitea,
nik etzaitut ikusiko,
naiago nuke askotaz bertan
baninduteke utziko,
atea itxi ta zure barruan
eternidade guztiko.

- 6/ Mendia, bildots eta ardiak,
zerate nere kuttunak,
nola ez maite bizia berai
esker atera degunak?
Orko pago ta arkaitz tartean
pasatako zorionak
gaur ere biotzean damazki
gordeta gure aitonak,
azken arnasa etorri arte
aztuko etzaizkionak.
- 7/ Esnaratu ta bordan nagola
eguna argitzeko pozez,
lenengo lana egiten gendun:
Jauna eskertu otoitzez.
Aitortza bertan egiten nion,
ez nintzan egoten lotsez,
Ark esatean joan egin bear,
ez dago esaterik ezetz,
ainbeste gauza eder utzita,
naiz maite izan biotzez.
- 8/ Borda ondoko arkaitz batean
kabi polit bat zeguan,
lau txorikume eder askoak
zeuzkala bere barruan.
Aitak eta amak etzekitela
aldegin zuten eguan,
aietxek ere libertadea
zeukaten nunbait goguan
Euskalerriko seme-alabak
orain nai duten moduan.

URBASA'KO
ARTZAI BATEN ESANAK

- 1/ Ametsetan pasa det
gauaren erdia,
esnaratu nintzan da
gaiñera egia:
kanpotarrez betea
zegola erria;
ez badegu galdu nai
gure jatorria,
itzegiten al degu
euskera garbia!
- 2/ Gazte-gaztetandikan
maite det Urbasa,
antxen artutzen baitet
gustora arnasa.
Ortik urruti dago
tximinien gasa,
naiz abioi zarren bat
gaiñetikan pasa,
leku sanoa zala
eman nion traza.

3/ Altsatsu'ra jetxi ta
berriz igotzean,
antxen egiten det lo
nere oatzean.

Txorien kantu-otsa
asten da goizean,
orfeoi bat bezela
arbol bakoitzean,
ura alaitasuna
nere biotzean!

4/ Ara udaberriak
elur danak urtu,
kanpoa berdetu ta
janaria sortu.

Arkumeak saltoka,
ardiak kontentu,
artzaiak Jainkoari
otoitzez eskertu,
zer ontasun geiago
bear det eskatu?

5/ Askotan etortzen da
jendea gugana,
artzaiari eman ez
alperraren fama.
Kalekoak izango
badezute jana,
gazta eta mamia,
jakia ta dana,
artzaiak ardiakin
egin bear lana.

6/ Zenbait txikiteoan
dabil ero-ero,
gorputza ondatutzen
jarririkan bero.
Kafea ta puroa
eta kopak gero,
askok egiten dute
ori egunero,
emen etzazutela
olakoik espero.

7/ Artzaiak mendietan
gera saiatutzen,
kalean daudenentzat
zer jana sortutzen.
Emen bizioetan
ez da gastatzen,
asko daude oituak
errez ondatutzen,
baiñan erakutsiko
dute zintzotutzen.

8/ Udaran etorrita
uste dute noski,
emen bizimodua
daukagula ezti.
Ekaitzaren sumiñak
artzaiak dakizki,
or kalean oituta
dabiltzanak gaizki,
emen ilko lirake
zortzitatik zazpi.

9/ Erlearen kabia
bordaren onduan,
ortxe dabilta egan
etorri ta juan,
loreak duen muiña
arturik abuan,
eztiak egiteko
kajaren barruan,
artzaiak jan dezaten
bear dan orduan.

GARATE PELOTARIA ZANARI

- 1/ Bertso batzuek zuri jartzea
bururatu zait, Garate,
nik bein ikusi zindudan eta
ezin naiz aztu gaur arte.
Naiz onenak sakatu,
beti errez bueltatu
eta errestua fuerte;
zure izenik ez da aztuko
pelota bizi dan arte.

- 2/ Zu Eusebio Garate zïñan
naiz Erdoza deitu gero,
mundu guztian entzundakoa
makiña bat txalo bero.
Iru onenak bota,
bera bakarrik kontra,
eta ia egunero;
pelotak izan zuen onena
zestua egin zan ezkerero.

3/ Iru onenak jartzen zizkaten
ta bera bakarrik kontra,
alare zuri zere garaian
batere etzizun inporta.
Jendea zutituta,
noiznai aide artuta
ta txapa gaiñean jota;
zu ezagutu etzinduenak
ez daki zer dan pelota.

4/ Amalau urte bete baiño len
profesional egiña,
bista ona ta naiko indarra
eta jokalaria fiña.
Birtute oiek danak
kanpeon izan zanak
bazituen bere diña;
garai danetan ezagutu dan
pelotaririk aundiña.

5/ Berrogei urte pasa zituen
pelotarako bizitzan,
zartu ta ere sasoiko danak
orren beldurrez zebiltzan.
Zalako ain iaiua,
danak baiño geiua,
beti maisu ibilli zan;
pelotarako jaiua zan da
pelotan jokatzen il zan.

6/ Munduak negar egiten zuen
gizon aparta galdua,
artean ere sasoia zeukan,
etzegon dana auldua.
Jaunak gorde dezala,
jokatzen ari zala
bete zitzaion ordua;
Barcelona'ko frontoi batean
agurtu zuen mundua.

7/ Mundu guztiak bagenekien
ona ziñala gogotik,
jendea zutik jarriko zuen
lendabiziko tantotik.
Zituen doai danak
Jaungoikoak emanak,
Ark bialduak zerutik;
guk ezagutu degun onenak
aldegin zigun mundutik.

ASTOA OSTU ZIOTEN BATEN ARRANKURAK

1/ Gure auzoko baserritar bat
inguratu zait lenguan,
bertso batzuek jartzeko ea
denbora artuko nuan:
«Santa Luzia egun batean
ni Zumarraga'ra juan,
ain gustatuta asto eder bat
andik ekarri genduan.

2/ Asto gaixoak inguru ontan
laister artu zuen fama,
bizi-lagunak esaten zuten:
«Orrek egiten dik lana!»
Baiña gu ere saiatzen giñan
ondo ematera jana,
urri antzean ibilli gabe,
komeni zitzaion dana.

- 3/ Ain zan umilla ta langillea,
ederra eta gaztea,
ta berarekin txoratzen zeuden
aurrak eta emaztea.
Egun batean pentsatu nuen
larrean libre uztea,
orduezkero ez det ikusi,
nun ote dago tristea?
- 4/ Aste osoan or ibilli naiz
jo bat eta jo bestera,
baiñan ezin det aztarrenikan
nik iñundikan atera.
Beldur-beldur naiz joana ote dan
emendikan apartera,
saldu zutenak berak eraman
ote didate ostera?
- 5/ Zenbaitek ez du animaliak
duen aiña kontzientzi,
ta oiengatik guk pasa bear
orrenbeste pazientzi.
Geroztik erdi negarrez dabil
nere emaztea Lutxi,
astoak asko daude gaur ere
baiñan alakoak gutxi.

6/ Gaur badakigu asko daudela
engañatzaille pizkorrak,
baldin nik zein dan jakiten badet
autsiko dizkat ezurak.
Zaunkikan ere etzuten egin
gure etxeko zakurrak,
ijitoaren aitzekin emen
bertan dauzkagu lapurrak.

7/ Arek gaixoak izan bear du
pikaron batek ostua,
seguru asko il da jateko,
ala daukagu juzkua.
Kontzientzia astoak jana
eta gizonak astua,
argatik dabil bi ankekoa
laukoarekin nastua.»

ELURTEA

- 1/ Mendian zauden borda maitea,
beti zaitugu goguan,
ixil-ixilik elur azpian
egondu zera neguan.
Ni ametsetan gozatzen berriz
nenbillen zure barruan,
aitona zanak egiten zidan
su epelaren onduan.

- 2/ Mendian dago aize sanoa,
or billatzen da pakea,
udaberria datorrenean
badijoa elurtea.
Ni berriz ere zugana nator,
zabal zaidazu atea,
zure barruan lo egitera
badator artzai maitea.

3/ Len esan dedan borda maiteak
izketan baldin baleki,
bakarrik zertan uzten genduen
galdetuko luke aurki,
bera izanik udara dana
pasatzeko bizi-toki;
elurrak ditu erru guztiak,
guk maite zaitugu beti.

4/ Ardiak antza ematen dio,
ekaitza badator, aurrez,
egunez berde zeuden basoak
zuritzen zituen errez.
Ardi maiteen larre gozoak
tapatu ziran elurrez,
igesi datoz menditik bera
pizti gaiztoen beldurrez.

5/ Elur azpian ixil-ixilik
gelditu ziran basoak,
jelatu ziran borda ondoko
artzaien iturritxoak.
Mututu ziran alai kantatzen
zekiten txori gaixoak,
orain or dabiltz janaren billa
goseak dauden otsoak.

6/ Elurrarekin mendiak zuri
jarri zituen neguan,
beldurgarrizko jelate ura
danok daukagu goguan.
Ardientzako jana falta ta
artzaiak larri orduan,
ontzak bakarrik zeuden gustora
gaztain zarraren zuluana.

7/ Negu osoa lotan pasa du
arbol-zuloan muzarrak,
ura ere ez dute estutzen
elurra ta giro txarrak.
Udaberrian adar gaiñetan
aren jostatu bearrak!
Piztiak ere badira iñoiz
gu geran bezin azkarrak.

8/ Udaberriak urtu zituen
elurrak eta izotzak,
goiko gaiñetan lurmena dago,
entzun dira kanta-otsak.
Berriz badatoz mendian gora
ardiak eta bildotsak,
alaitutzera neguan triste
edukitako biotzak.

AMERIKETAKO
ARTZAI BATEN KEZKAK

1/ Aur txiki baten lenengo itza
beti izaten da ama,
aren petxutik artu baitzuen
bizitzeko bear dana.
Pozaren pozez emango zion
berak al zezaken dana,
pixkabanaka aunditu dedin
lenago txikia zana.

2/ Maitatu eta poza emanaz
ain goxo azi ninduten,
nik ala ere kabitik iges,
zer pena izango zuten!
Amaganako maitetasuna
ere an asi zan juten,
oroitu gabe gugatik berak
lenago zer egin duten.

3/ Txoriak bere umeak bezin
maiteak izan ginduan,
ta ni kabitik aize txar batek
egan bialdu ninduan.
Geroztik egun garratza pranko
pasea nago munduan,
ez, egon banintz nere etxean
ama zarraren onduan.

4/ Amak alare beti zabalik
bere etxeko atea,
zori gaiztoan pentsatu nuan
Amerikara joatea.
Ni an mendian sufritzen eta
etxean ama maitea,
kastigua an pagatu nuen
gure Jainkoak botea.

5/ Ameriketan artzai nengola
etxeaz pentsatzen beti,
nik orduan an ama bear ta
ama zegoen urruti.
Bakardadea zer izaten dan
pasa duenak badaki,
arroa joan banintzan ere
umildu nintzan ederki.

6/ Mendian antxe egoten nintzan
ardi-kontuan jarrita,
zein egunetan bizi nintzaden
ere ezin igarrita.
Urte osoan jai bat ere ez
ta gero igual errita,
nik an bezela saiatu banintz
emen neukan Amerika.

ARIZKUN'GO
JAIME LARRALDE PELOTARIARI

1/ Baztan ballaran dago Arizkun
altutxo polit batean,
nere lagun bat antxe jaio zan
ni jaio nintzan urtean.
Pelotan oso ona izana
sasoia zuen artean,
urte batzuek pasa zituen
onentxoenen artean.

2/ Bere garaian Larralde ere
gendun txit gizon gordiña,
Soroa eta Haran'en kontra
partidu latzak egiña.
Orduan Haran juzgatutzen zan
trinketean zan aundiña,
oitamarrera berdindu ziran
ogei eta beatziña.

3/ Andikan laister zuen Larralde'k
zaldi kozkor bat erosi,
askoz obe zun begien bistan
sekula ez balu ikusi.
Ostikoz jota iltzat egon zan
amabost orduan kasi,
noizbait kontua etorri eta
oraindikan ere bizi.

4/ Ondo sendatu zitzaion baiñan
ia galdu zun begia,
zaldi txar batek ondatu zuen
olako pelotaria.
Ainbeste ordu konturik gabe
eta ura komeria!
Onen-onena zegon garaian
moztu zitzaion aria.

5/ Pelotarako bista falta ta
Kaliforni'ra joan zan,
gizarajoa diru pixka bat
aurreratzeko zalantzan.
Zerua goien ta lurra bean
an ibilli zan artzantzan,
berak daki zer pasako zuen
ango bizimodu latzan.

- 6/ Kaliforni'ko basamortua
izan bear du aundia,
kilometroak belar-soro ta
aiek danetan ardia.
Artzai bakarra bi zakurrekin,
riflea eta zaldia,
kristaurik ere etzan ikusten,
piztiak eta mendia.
- 7/ Berriz onuntza ango kontrata
bukatu zuen orduan,
nai ordurako etzan iritxi
len utzi zuen zeruan.
Au bezelako bizi-tokirik
ez omen dago munduan,
orain gustora bizi da emen
famiaren onduan.
- 8/ «Ametsetan maiz ikusia naiz
jaiotetxeko basoak,
senide maite, lagun zintzoak
eta nere gurasoak.
Lotan nengola bakarrik pasa
nituen ordu gozoak,
esnaratzean eskuetatik
beti aldegin usoak.»

9/ Arrapatu zun bere ametsetan
iges joaten zan txoria,
bien artean bai egin ere
eder askoa kabia.
Bi seme eder ta emaztea,
denda bat zoragarria,
oiek danakin bizi da orain
Larralde pelotaria.

KONTZIENTZIARI

1/ Lengo batean egon
nintzan pentsatuzen:
kontzientzia ari
gera baztartutzen,
ez baitakigu alkar
errespetatutzen;
orregatik da zailla
ibiltzea zuzen.

2/ Gezurrez engañatzen
dute mundu dena,
egin nai dutelako
ezin litekena;
eman izan balute
agindu zutena,
ez genduen pasako
orrenbeste pena.

- 3/ Jarri zaite munduan
erreparatutzen,
zenbat ari diraden
goseak urtutzen,
eta beste batzuek
geiegiz lertutzen;
ezta kontzientzia
asko goatutzen.
- 4/ Gaitzik txarrena bada
kontzientzi-palta,
ezpadezu ematen
geiegi izanta,
egunen batez berdin
izango dira-ta,
emen danak iltzeko
jaioak gera-ta.
- 5/ Kristo, eman zenigun
ejenplo ederra,
ondo erakutsitzen
egin zuen lerra.
Kontzientzirik ezak
ekartzen du gerra,
ortantxe dago gizon
askoren okerra.

6/ Gorputza osatzen da
ezur ta aragiz,
ta gero auts biurtu,
alperrikan gabiltz.
Anima edukitzea
kontzientzi garbiz
geroko obe degu
makiña bat aldiz.

7/ Bajoak pagatzen du
leku geienetan,
eztago sartutzerik
edozein dendetan.
Aundiak ta txikiak
danak lapurretan,
kontzientzia galdu
zuten errietan.

8/ Millaka asko milloi
Suiza'k antxe ditu,
arek ere lapurrak
pozik ametitu.
Emendik eraman da
gero an partitu,
kontzientziaz asko
etzioten beitu.

9/ Askok kontzientzia
zer dan e jakiñ ez;
lapurrak diradenak
emen beren griñez,
zarrak ortxe utzita
biotzeko miñez,
an dabilitza ederki
nai dutena egiñez.

UREPELE'KO ARTZAI ZANARI

1/ Euskalerria arbol bat degu,
adarrak ditu erriak,
adar oietan kantatzen zuen
len Ahetze'ko txoriak.

Urte askoan lagundu zion
il zan Xalbador aundiak,
arbola zutik dagoen arte
ez dira aztuko biak.

2/ Bi txori auen kaiolak daude
Urepele'n da Ahetze'n,
andik irtenda adar oietan
aritzen ziran kantatzen.

Txoriak il da kaiolak utsik,
iñork ez ditu betetzen,
ez baita errez, nai izanda're,
alakoak berriz sortzen.

- 3/ Adar oietan izaten ziran
bi txori oien kabiak,
kabi oietan sortu zitezen
geroko txori berriak.
Bertsoak eta oitura zarrak
galtzen baditu erriak,
gero ikusi bearko ditu
bere ixtillu gorriak.
- 4/ Xalbador, izar bat izan ziñan
argia egin zenduna,
zerbait aparta bazenduen zuk
Jaunak ematen zizuna.
Gaixo dagoen izkuntza oni
eman naian osasuna,
biotza lertzeraiñokoa zan
zenion maitetasuna.
- 5/ Zure esanak ezpatak ziran,
argatik daude goguan;
maixu aundia izandu ziñan
bertsolarien munduan.
Gu bearrena giñan garaian
ziñaden emendik juan,
sinistatu're eziñik gaude
nola aldegin zenduan.

- 6/ Odei artetik aingerutxo bat
an azaldu zan zeruan,
mirariren bat ote zekarren
kezkatu ziran orduan.
Urepeldarrak il arteraiño
izango dute goguan,
eta Xalbador Jaunarengana
aretxek eraman zuan.
- 7/ Geiago zure oiartzunikan
ez du entzungo mendiak,
geiago zure txistu-soiñurik
ez du entzungo ardiak..
Len egunero ogi-koxkor bat
izaten zuen ariak,
galdetuko du: «Nora joan dira
artzaia eta sariak?»
- 8/ Ari gaixoak eguneroko
ogi-koxkorra buruan,
mundu tristean goseak iltzen
dauden askoren moduan.
Arek ez jakin beste Artzai bat
ere badala zeruan,
Xalbador zana berarengana
Aretxek eraman zuan.

AMERIKATIK ETORRITAKO DONOSTIARRA

- 1/ Amerikara joan nintzaden
nituela ogei urte,
beste berrogei an pasa ditut
eta irurogei bete.
Ez nengon lasai jaioterri au
berriz bisitatu arte,
orain biotzak eta begiak
negar egiten didate.

- 2/ Lengo tokian or dago plaia,
jiran daduzka mendiak,
Urgull'dik jarri begira eta
gozatzen ditut begiak.
Baiña bi gauza falta ditu gaur
ni jaio nintzan erriak:
or ibiltzen zan tranbe zarra eta
lengo sagardotegiak.

3/ Sagardotegi maitagarriak,
arrantzaleen kabiak,
zuen autikan entzuten ziran
abesti zoragarriak.
Nun dira lengo libertadeak
eta oitura garbiak?
Urte gutxian au da mudantza.
egin diguna erriak!

4/ Donosti maite, len eta orain
zu zaituenak ikusi,
billatuko du diferentzia
orduan edo gaur bizi.
Sagardotegi danak itxiak,
kalea bete polizi,
eta alare ez dago orain
lenago aiña justizi.

5/ Traje urdiña jazten zenduten
lengo arrantzale zarrak,
denbora artan zuek ziñaten
Donostia'ko izarrak.
Neronen begiz ikusten ditut
emen mudantza edarrak,
zuen tokia artu digute
illea eta bizarrak.

6/ Ta orain modan daukagun onek
droga daduka izena,
Euskalerrira sartu diguten
benenorikan txarrena.
Baldin norbaitek jo ta zaiñetik
ezpadu moztutzen dena,
oraindik orrek ekarriko du
euskaldunaren azkena.

7/ Nun dira lengo errespetuak
eta oitura lasaiak?
Au esan zigun Nevada'tikan
etorritako artzaiak.
Odol zaleak dirala orain
emen dabilizan izaiak,
birao gabeko izkuntz eder au
galdu nai duten etsaiak.

IGELDO'KO ARROKETAN

Bein batean, Igeldo atzeko arrocketara joan giñan lapetara. Baiña guk itxasoko berri asko ere jakin ez. Ta, lapa biltzen ari giñala, etorri zan olatu aundi bat, eta dana tapatu eta gure gaiñetik pasa. Eraman ez ginduenean, kontentu. Atera eziñik gaizki ibili giñan. Ta, atera giñanean, etxera larri. Geroztik, lapetara berriz joateko gogoak kenduta gabiltza. Itxasoko arrocketara arri-matzeko asmoak ere joan zitzaizkigun.

Ondoren, bertso auek jarri nituen:

- 1/ Igeldo'tikan bera
jetxi giñan oiñez,
asko nekatu gabe,
bear zan tamaiñez.
Olatuak burutik
egin zigun gaiñez,
atera nai ta iñork
igari jakiñ ez.

2/ Orain bertso batzuek
nai nituzke jarri,
atera giñan baiña
ibillita larri.

Legorrean gustora
egin gendun korri,
naiz laparikan gabe
etxera etorri.

3/ Ondo tapatu gindun
olatu galantak,
atera nai ta ezin
aiek zalapartak!
Itxasoak baditu
gero bere tranpak,
or konpon ditezela
arroka ta lapak.

4/ Itxasoko gauzetan
nola geunden kinto,
antxe galdu zitzaigun
gure txakur *Pinto*.
Lapak eta lanpernak
betirako kito,
eta ez dakit nola
ez giñaden ito.

- 5/ Andreak ere esan
zizkigun galantak:
«Geiago ez joatea
besterik ez daukak!»
An geldituak dira
lapernak ta lapak,
eskarmentatu gindun
ein gendun eskapak.
- 6/ Ur gazitikan trago
galantak egiñak,
ondo joan zitzaizkigun
lapetako griñak.
Ondorenean aiek
tripetako miñak!
Bizi guztian pasa
ditugun aundiñak.
- 7/ Naiz seko xamar egon
aurrez barrutikan,
ez gendun izan laba-
tiba bearrikan.
Seguru asko ezta
salduko botikan,
barrua garbitzeko
alako purgikan.

8/ Itxasoak badaki
umiltzen arruak,
nai ez genduela guk
ein giñun traguak.
Orain erdi erreta
dauzkagu barruak,
kendu zaizkigu berriz
joateko goguak.

EZ ASTO TA EZ KOTXE

- 1/ Astoa saldu eta
kotxea erosi,
obe nuen sekulan
ez banu ikusi.
Nunbait nik txofer ondo
ez nuen ikasi,
orregatikan daukat
oinbeste desgrazi.

- 2/ Kotxea bai astoan
aldean azkarra,
illabete baiño len
jo nuen baztarra.
Orain ementxe nago
autsita iztarra,
zenbat goatzen zaitan
lengo asto zarra!

- 3/ Naiz perira joan da
zerbait berandutu,
astoak bai etxera
txintxo entregatu.
Artaburuan ordez
bizkarra berotu,
badakit ez giñala
ederki portatu.
- 4/ Aundi-naiak galtzen du
makiña bat etxe,
gizonaren okerra
daukagu ortantxe.
Ni orain oiñez nabil
leno bezelaxe,
gelditu naizelako
ez asto ta ez kotxe.
- 5/ Karga aundiak jarri
ta geiegi zanpa,
mantxotutzen zanean
makillakin kanka.
Arek ostiko tira
luzatuaz anka,
gaiñera etzizaion
arrazoia falta.

6/ Askotan esaten dit
neronen barrenak,
danak ez ditut sartzen
baiña bai geienak:
gerok ote geraden
animalienak;
astoa il da gero
triste gaude denak.

7/ Asto gaixoa, orain
dadukagu pena,
erretiro jator bat
merezi zuena.
Lanean pasatuta
bere bizi dena,
azkenean zirkoko
leoien jatena.

8/ Amaika aldiz esan
zidan neri amak,
aundi-naiak galduko
ginduela danak.
Kotxearen diruak
juezetan janak,
neronek egin bear
orain asto-lanak.

9/ Nuen diru pixarra
juezak jan zian,
ta kartzelan eduki
denbora luzian.
Ez dakat ibiltzerik
geiago kotxian,
asto-lanak egiñez
bizi naiz etxian.

ISRAEL TA ARABEAK

- 1/ Israel eta Arabientzat
jartzera nua bertsuak,
ez dakit zeñek duen arrazoi
bañan ez dabiltz goxuak:
larriaren antsiyak
egiten ikasiyak,
kiskaltzen erri osuak,
errukarriyak an il zituzten
ama ta ume gaxuak.

- 2/ Zakur aundiak txikia emen
azkar sartzen du azpira,
etziran egon konponketa bat
onez eiteko begira;
beldurrik gabe bota,
naiz danak ill, inporta
ez diyotenak badira.
Umiak eta inozentiak
errespetatu sikira!

3/ Gerra jartzeko armak saldu ta
danak pakea eskatu,
zer uste dute oiek: munduan
ez dirala konturatu?
Gezurra edo tranpa,
al dutena arrapa,
erri txikiak ondatu;
Batikano'ren esanik ere
ez dute errespetatu.

4/ Gerrak ondoren gosea dakar,
goseak begi argiak,
pentsatu ondo nora zoazten
zuek e, agintariak.
Gaur badaki erriak
zein diraden zerriak,
danak gaude igarriak:
txikiak gerran jarriazi ta
gaiñetik parrez aundiak.

5/ Jaunak emana txikiak ere
badegu geren bizia,
baiña kozkaka nunbaitetikan
asiko zaigu izaia.
Izan zaitez artzaia,
bide onetik saia,
galdu dedin txar guzia;
beti aundiak agindutzea
da pakearen etsaia.

- 6/ Soro ederrak jarri litezke
lurrak dauzkan zenbait sasi,
orduan ez litzake izango
dagon aiña ezin bizi.
Baiñan ordea emen,
naiz milloiak izan len,
geiago nai irabazi;
ori etzuten Jesukristoren
dotriñatikan ikasi.
- 7/ Mundu guzia beldurrez jartzen
diruditela legoiak,
gizonak nola izan litezke
orrenbesteko tragoiak?
Askok jateko falta,
gaur erruz bear da ta
armetarako milloiak;
gu baiño maiteago dituzte
tankeak eta kañoiak.
- 8/ Beldurgarrizko gerra zital bat
arabe ta Israel'ek,
arro asiak baziran ere
ondo umilduak zeudek.
Ondasun danak erre,
utzi gabe ezerre,
gerraren frutua au dek;
aurrerapena au baldin bada
leku ederrean gaudek.

9/ Aurrerapenak aundiak daude,
baiña danak zertarako?
Anaiak alkar iltzen gabiltza
gelditu gabe jo ta jo.
Danon gaiñetik nai ta
izaten zailla baita
seta indartu dalako,
arrazoiari berea ematen
ikasi ez gendulako.

USOAK

- 1/ Urtero pasatutzen dituzte usoak bide luzeak eta egun nekosoak. Eiztariez beteta dauzkate basoak, iltzeko errurikan ez duten gaixoak.
- 2/ Usoak pagatzen du bere eriotzez, gu gera egon bear gendukenak lotsez. Baiña nola baigeran gogorrak biotzez, emen egoten gera zu iltzeko pozez.

- 3/ Egalarri pizkorra
zerade, usua,
bai gauza umilla ta
gaiñera mantxua.
Sufritzeko mundura
jaioa gaixua,
zu zera eiztarien
gustoko pentsua.
- 4/ Eztiozu gaitzikan
egiten iñori,
alare eztizute
errukirik zuri.
Eiztariak askotan
tiroka berari,
ta eritutzen dana
miruen janari.
- 5/ Usoen bizitoki
dirade mendiak,
Jaunak frontierik gabe
zuentzat jarriak.
Uste eztan lekuan
daude eiztariak,
koitadu gaixo oiek
dauzkaten larriak!

6/ Egan ibilli arren
batetik bestera,
bizilekutzat artu
zenduen euskera.
Ezpaziñan Noe'ren
arkatik atera,
etziran etorriko
orain zu jatera.

7/ Irten ziñan ezker
Noe'ren arkatik,
etsaiak badituzu
alde danetatik.
Miru ta gabiroiak
segika bertatik,
amorruez dabilzanak
zu jateagatik.

8/ Eiztariak asiak
dauzkagu kejatzen:
ez dirala lenago
bezela azaltzen,
usoak asko ari
dirala bakantzen;
errua nun dagoen
ez dute pentsatzen.

MAITASUNA

1/ Zer da biotza geien
zulatzen dun arra?
Bizia bat izan da
il egin bearra.
Orretzek sortzen digu
naigabe edarra,
biotza tristetu ta
begira negarra.

2/ Batzuetan goxo ta
besteetan zakar,
gure mundu pizar au
badijoa azkar.
Zarrago ta geiago
maitatuaz alkar,
mingarri izango da
gelditzea bakar.

3/ Gaztetan goraka ta
zartutzean bera,
arbolak bezelaxen
igartutzen gera.
Ain da gauza tristea,
oroitzen bazera,
maitasunik ez bada
gure izaera.

4/ Askok maitatutzea
degulako galdu,
gauza mingarri asko
zaizkigu azaldu.
Kristauak ez du bear
ezkontzea damu,
Jaungoikoak emana
lagun ona badu.

5/ Orain emazte detan
lengo andregaiia,
bidean datorkigu
urrezko eztaia.
Alkarrekin astea,
alkarrekin jaia,
gure bizimodua
gozo ta alaia.

6/ Egunean bi aldiz
naiz eman errita,
ori berezkoa du
eta alperri-ta.¹
Zaputza pasatu ta
etortzean gaita,
eztia baiño ere
goxoago baita.

7/ Ezer ez dakiena
jartzean nagusi,
orduan gozo dana
biurtzen da gazi.
Ezpazendun txikitan
bizitzen ikasi,
alako bat artuta
ondo nola bizi?

8/ Maitasunik ez bada
ezkontzea zertan?
Ikusten ari gera
Donostia'n bertan.
Noiznai dibortzioa
ezkon berrietan,
maitasuna galdua
dagon errietan.

¹ alperri-ta: alperrik da.

AIZEA

- 1/ Egiak asko dira
aitonen esanak,
jakiten dualako
probatu zuanak.
Sagarrak danak bota,
autsi arto danak,
aurten aizearentzat
egindako lanak.

- 2/ Ezin gindezke bizi
aizerikan gabe,
geiegiak ordea
badauka lana're.
Eraman ez gaitu ta
kontentu gerade,
naiz etxea gelditu
ez tella ta ez abe.

- 3/ Oillarra ta oilloak
joan ziran aidian,
ekartzerik ez dago,
ez dakit nun dian.
Ta gerok ere antxe
beldurak mendian,
joango ote giñan
besteen bidian.
- 4/ Ez nuen sinistuko
munduan bazanik,
begira jarri eta
ikusten ez danik,
gauzik ainbeste indar
izaten duanik;
aurten uzta bildutzen
ez daukagu lanik.
- 5/ Itxasoan sortutzen
danean galerna,
arrantzaleentzako
dan gauzik txarrena.
Bota zenduenean
Urola'ra trenan,
utzi zenduen aztu
ez liteken pena.

6/ Ernaniar bi ere
antxen ito zian,
beti akordatzen naiz
aizeak jotzian.
Pentsatuzen jarritzen
naizen bakoitzian,
ezpata sartutzen da
nere biotzian.

7/ Ikusten etzerana
baiñan indartsua,
iñoiz egiten dezu
jokera faltsua.
Itxasoan barkuak,
mendietan sua,
ez da gustagarria
zure erasua.

8/ Ikusten ari gera
joan dan aspaldian,
zer lan egin dituzun
Euskaldun Errian,
jartzen zeradenean
kolera gorrian;
gauza bearra zera
baiña negurrian.

9/ Ni bi aizeak ondo
nago probatua:
iñoiz kixkalgarrri ta
iñoiz jelatua.
Demonio aize txar
madarikatua,
inpernuko zulotik
ateratakua.

XALBADOR ZANA

- 1/ Urepel'go mendian
zenduen lenbizi
gure Euskalerriko
argia ikusi.
Bertsoak etzizkizun
iñork erakutsi,
zor diozu amatxo,
aita ta Jesusi.

- 2/ Aingeru bat mundura
sortu ziñanean,
erri apal artantxe,
garaia zanean,
nork esan bear zuen
zuk ondorenean
argi eingo zendula
euskera danean?

- 3/ Urepel'ko elizan
an dago ponteá,
bataiatu zuena
Xalbador maitea.
Geroztik izandu zan
mirariz betea,
Jaunak nai zuelako
ala izatea.
- 4/ Kolejioan gutxi
ibilli zan baiña,
alare bazekien
maixu danak aiña.
Edozeiñi ta errez
artzen zion gaiña,
Jaunak egin baitzuen
kantari bikaiña.
- 5/ Gu negarrez utzita
joan ziñan emendik,
aparta baitziñaden
beste danengandik.
Jaungoikoak doai au
eman zizun lendik,
ezta au erosi ta
saltzen duen dendik.

6/ Bular bedeinkatua
zuk artu zenduan,
amaren besoetan,
suaren onduan.
Eta artxek poeta
biurtu zinduan,
aztuko etzerana
geiago munduan.

7/ Guztiona dan Aitak
bazekien ongi
danen gaiñetik eingo
zenduela argi.
Orain il zeranean
ikusi da garbi
nola izandu ziñan
gorputz batekin bi.

8/ Plazetan kantatu ta
paperean jartzen,
zuri bi aldetara
zitzaizun etortzen.
Urte batzuk joan leizke
zure lana partzen,
beste Xalbadorren bat
ezpazaigu sortzen.

9/ Izandu ziñalako
poeta argia,
Urepele'n ikusi
nai degu jarria
danen oroimengarri
zure iduria:
eskuetan librua,
oiñetan ardia;
au izandu zan gure
Xalbador aundia.

AZERIA

- 1/ Lengo batean izandua naiz
anaia Joxerengana,
motibuak e bazituen da
zer amorrua zeukana!
Galdetu nion: «Motell, nun daukak
edertasun onen ama?»
Erantzun zidan: «Lengo batean
azeri zar batek jana.
- 2/ Kolka batenak dirade danak
ta berak zituen azi,
nere begien aurrean ez tet
ederragorik ikusi.
Azeri batek arrapatu ta
aldegin zidan igesi,
txito gaixoen amak etzuen
olakorikan merezi.»

- 3/ Gure Joxe oi antxe zebillen
ia arturikan suak,
ta esan zidan: «Azeri orri
jarri beaizkak bertsuak.
Motell, kabian neuzkan lekutik
eraman dizkik usuak,
baiñan geiago ez dizkik jango,
bete zaizkiok plazuak.
- 4/ Azeri orrek eztik ementxe
karrera txarra ikasi:
egaztirikan goxoenak jan,
lanik egin gabe bizi.
Kabian zeuden uxokumeak
jan zizkidan lendabizi,
bai ama ere gustora asko
ezpalitz joan igesi.
- 5/ Baiñan, anaia, nola ditudan
eiztari amorratuak,
azeri orri nundik dabillen
artuko'izkate puntuak.
Lau erbi-zakur txabolan daude
katearekin lotuak,
danak batean askatzen ba'izkat
aterako'izkik kontuak.

- 6/ Mutur txorrotxa, begiak argi
eta belarriak tente,
biboteak e luzatu zaizka,
zartua dago bastante.
Bi-iru urte ontan egin du
emen makiña bat kalte,
baiñan ez gera gu geldituko
arrapatzen degun arte.
- 7/ Ordu batetik ordubitara
etortzen da eguardian,
gu otordura noiz biltzen geran
ura baitago guardian.
Gorde-lekua sasian dauka
etxe atzeko mendian,
sua emanda erreko degu
inpernuaren erdian.
- 8/ Ea egiten ditugun laister
pizti txar orren pakeak,
gogorak dira gure etxean
egin dizkigun kalteak.
Surtatik iges naiko du baiña
itxiko zaizka ateak,
bukatu ditu gure etxeko
uxo ta oillo-jateak.»

KRISISA

- 1/ Lenago're baziran
pizkorrak izanak,
ikusten ari gera
orduko esanak:
Taberna ta bide uts
laister bazter danak,
bizi nai ta eziñak
emango'itu lanak.

- 2/ Emen bai industria,
emen bai fabrika,
atzerritar guztiak
onera korrika.
Orain nai izatea
degu alperrika,
oiek bialtzerikan
etziok arrika.

- 3/ Etorri zan krisisa,
larri gera danak,
umilduko gaituzte
arro genbiltzanak.
Eta besteren onik
ezin eramanak,
gure erri maiteak
izango'itu lanak.
- 4/ Jendea're geiegi
gera ugaritu,
ta besteren onikan
ezin guk sufritu.
Lantegiak itxi ta
gauzak galestitu,
orrek ondoren txarrak
ekarriko ditu.
- 5/ Au ondo bizitzea
botoen ordaiñez!
Emango etzutena
agindu mingaiñez.
Erria engañatu
kontu ta mitiñez,
orain berak ederki
nai dutena egiñez.

6/ Kristauen inbiria
joango da indartzen,
lana ta irabazia
ez badira jartzen.
Gauza gora igo ta
pezeta bajatzen,
emen alper geiegi
ari da txupatzen.

7/ Pentsatzen jarrita're,
jaunak, au mundua:
Batzuen inperua,
besteen zerua.
Etsaiaren mendean
dago aingerua,
ez baitute egin nai
Kristok agindua.

UZTAPIDE ZANA

- 1/ Manuel zana jaio ta gizon
egin zitzaigun Zestua'n,
gero bizi zan erria ere
gogotik maitea zuan.
Aingeru bat or lagun artu ta
kabia osatutakuan,
il arte bertan bizi izan zan
geroztik urte askuan.

- 2/ Gazte denbora pasatu zuen
aizkorarekin basuan,
gizarajoak lan gogorrean
ain borondate osuan.
Bazun berezko argitasun bat
bere izate gozuan,
zer izango zan zenbaitek duen
eskola izan bazuan?

- 3/ Bere aotikan entzun izandu
gendumen bertso ederrik,
arrazoietan zuzen joango zan,
etzuen joko bazterrik.
Manuel zanak mendekoari
etzion egingo parrik,
erri au zenbat gozatu zuen
Jainkoak daki bakarrik.
- 4/ Naiz baserrian egin bizitza
noiznai jeixten zan kalera,
gu ere pozak bildutzen giñan
ura zebillen aldera.
Itzal aundiko errespetuan
egingo zuen galdera,
amaika aldiz ari entzuten
gozatu izandu gera.
- 5/ Lenengo entzun genduenean:
«Il da Uztapide zarra»,
Oiartzun erri ortara bildu
giñan jendetza edarra.
Azken agurra egin naiean
begietatik negarra,
itzaldu baitzan urte askoan
argi egin zun izarra.

6/ Bagenekien gizarajoa
gaixo zebillela aurrez,
ta Oiartzun'go elizan sartzen
egun artan etzan errez.
Batzuek antxen errezatutzen
eta besteak negarrez,
il zan amaika egi esanda
guretzako on bearrez.

7/ Lagun maiteak emen utzita
aldegin zuen betiko,
ni Jaungoikoa izan banintzan
ez nion joaten utziko.
Gurekin emen bearko zuen
eternidade guziko,
sinistu ere ezin det berriz
ez degula ikusiko.

8/ Doai apartak bazenitun zuk
gure Jainkoak emanak,
ainbeste ziran zoragarriak,
Manuel, zure esanak.
Geientsuenak gogoan ditut,
zail da edukitzen danak,
al dana egiten saiatzen gera
zure lagunak giñanak.

9/ Gizonak gutxi izaten dira
zu ziñan bezin osuak,
argatik daude zure esanak
gogoan ondo jasuak.
Zure tokia zeruan dago,
etzaitu erreko suak,
gorputza il zan betiko baiña
bizirik daude bertsuak.

BIZI BEARRA

- 1/ Jaunak ez ote gera
pixka bat arrotu?
Oraintxe ia iñork
ezin du burutu.
Nunai gizonak il da
gaiñera lapurtu,
orrek gerra besterik
ez lezake sortu.

- 2/ Guk beti izan degu
prestuaren sona,
baita gustatu ere
pakea ta broma.
Gauza bere tamañan
izaten da ona,
libertade geiegik
lotzen du gizona.

3/ Burdeos'en bizi dan
batek esan dizkit,
gerra zala joanda
an dago geroztik:
baleuka gastatuko
lukenean pozik,
an ere emen bezela
zakurrak ankutsik.

4/ Bizi bearrak badu
makiña bat batxe,
aberatsak bezela
gabiltza oraintxe.
Edozein familitan
iru ta lau kotxe,
lengo zarrak etziran
oituak olaxe.

5/ Baiñan geiago lasai
ez gindezke bizi,
urte eder askoak
joan dira igesi,
ta zintzoak izaten
ez gendun ikasi,
baiñan joka liteke
baietz erakutsi.

6/ Egunez lana falta,
pentsatzen arratsak,
berriz ere badatoz
denbora garratzak.
Dituztenak artuta
alde aberatsak,
arrapatuko gaitu
bizimodu latzak.

7/ Bizioz ere asi
giñan kejatutzen,
baiñan ederki ari
zaigu mudatutzen,
Guri berrogei ta bat
etzaigu aztutzen,
oitu giñadelako
latzak pasatutzen.

8/ Badakigu dotriñak
jarrita daukana:
beartsu dagonari
emateko jana,
bakoitzari berea
eta bear dana;
orixe egiteak
emango du lana.

ZERRI ILTZEA

- 1/ Lengoan joan nitzan
anaian etxera:
«Motell, biar giaztik
zerria iltzera,
urteroko oitura
daukagun antzera,
ta etorriko al aiz
anketik eltzera?»

- 2/ Animalirik orren
pizkorrikan zanik!...
Anketatik eltzeko
Lexotik eta nik,
ez genduela egin
bear zan esanik,
aurten odolki jaten
eztaukagu lanik.

- 3/ Kokotzetik gantxo
sartu Joxe Marik,
guk ezin errenditu,
an ziran komerik.
Irurak aiña indar
bazuen bakarrik,
saiatu giñan baiña
arekin alperrik.
- 4/ Len ere ezkurtean
nola baitzan azi,
orretxengatik zeuzkan
jenioak bizi.
Berriz ere mendira
jo zuen igesi,
kokotzean zeraman
gantxo eta guzi.
- 5/ Indar gutxi giñala
esan nioten nik,
eta ez genduela
egingo gauz onik.
Aurten barau ein bear,
ez det beste penik,
txerrimoni partitzen
ez daukagu lanik.

6/ Ura bere kabitik
etzala aterako,
naiko ezkurra janez
gizendu zan bapo.
Zakar artu genduen
gure kalterako,
eskarmentatu gaitu
beste baterako.

7/ Gogoratuko zaizka
pasa zitun miñak,
anaiak sartutako
gantxoak egiñak.
Kontu izan dezala
zer dan ez dakiñak,
zorrotz jarriko dizka
bere letagiñak.

8/ Zenbat indar ote du
gure zerri zarrak?
Laister pasa zituen
etxeko malkarrak.
Etzuen ikaratzen
otea ta larrak,
orain gure kontura
eingo dizkik parrak.

RETEGI'TARRAK ¹

- 1/ Zu mendi baten magalean or
erri txiki bat Erasun,
bai al dakizu zeure semeak
zer pelotari dauzkazun?
Artu zenduen miña,
ez gauza atsegiña,
ta deskantsua bear zun,
baiñan berriz e Retegitarrak
ez dute gaizki erantzun.
- 2/ Osaba etzan motela izan,
ark egin zituen lanak,
baiñan, Julian, seme pizkorra
sortu zinduen zu amak.
Lenago erri ori
zanikan ere guri
ezjakiñean giñanak,
«Oik Erasun'go semeak dira»
gaur esaten degu danak.

¹ Bertso auek, Retegi osabari azken ezbearra gertatu aurretik jarriak dira.

3/ Zuek zerate odol bereko
zaiñetatikan sortuak,
ezker ta eskubi egoki utsak,
danak pelotarakuak.
Kontrarioai beitu,
ankak azkar mugitu,
ondo atera kontuak
zein aldetara tira ta egin
bear diraden tantuak.

4/ Lendabiziko egingo dezu
sake gogorra al bada,
ta berriz ere ezkerrez jota
ia atzeko puntara.
Jarriko da serio,
berez dala merio,
ta sartuko du ikara,
orduan berriz egingo dio
uste gabeko dejada.

5/ Retegitarrak, zuen pelotak
ez du galtzerik merezi,
orixe zuten beren gogozko
ta bai ederki ikasi.
Umil eta serio
urte gutxian io
ta orain danen nagusi;
buru onean dagon txapela
al dan artean ez utzi.

- 6/ Lenengo argia ikusi zuten
Erasun maitagarrian,
zartu ta gauza ez diranean
min daukatela gerrian,
arriz egindakua
jarri an estatua
plazaren erdi-erdian,
oroimengarri izan dedilla
jaio ziñaten errian.
- 7/ Jaio ziñan da azi ere bai
ama onaren besuan,
bere petxuko bularra emanaz
gizona egin zinduan,
pelotan jaun da jabe
asko oroitu gabe
gero nola izango zuan;
seme pizkorrak sortutzen dira
uste gabeko lekuan.
- 8/ Belauna erdi autsi eginda
geldi denbora askuan,
baiña berriz e sartu zerade
ia len zendun jokuan.
Segi, Retegitarrak,
gazteak eta zarrak,
indar orrekin eskuan;
zuen izena ez da aztuko
errian eta kanpuan.

- 9/ Bista dezute berdin gabea
eta jenioz biziak,
nola baitiran leku oneko
aidea artuz eziak.
Gora Retegitarrak,
gazteak eta zarrak,
osaba-illoba guziak;
urte askoan gorde ditzala
Jaungoikoaren graziak.
- 10/ Apaiz ta praile ta aizkolari
ta pelotari onenak,
mendiko erri koxkor oietan
jaioak dira geienak:
gaztetan sufrituak
ta gero merituak
irabazi dituztenak;
txalogarriak zerate zuek
ori egin dezutenak.

MARTIN BERASATEGI ZANARI

- 1/ Goizean jeiki eta salara
joaten naizen bakoitzian,
alako gauza pozgarri bat nik
sentitzen det biotzian.
Kanpotarren bat noizik eta bein
gure etxean sartzian,
esaten diot «Erregali au
Martin zanak egin zian.»

- 2/ Ogei bat urte izango ziran
guk alkar ezaguturik,
eta geroztik ez nuen izan
oi egindako damurik.
Estimatzeko gauza izan zan
eta poza artu nun nik,
zedorrek ere etzenekien
zer maitasuna nizun nik.

3/ Zure bodegan guk ordu gozo
asko ditugu pasiak,
antxe barrura sartzen genitun
igarrak eta eziak.
Zenbati kendu ote zizkazun
egarri eta gosiak?
Azitarako bear luteke
olako kristau-klasiak.

4/ Naikoa jan da kafea artu,
gero erreaz purua,
zenbati jarri ote zenion
kantatuzeko gogua?
Bart ametsetan nik zer ikusi
detan esatera nua:
zure bodegan egin zutela
bertsolarien zerua.

5/ Nunbait neroni egongo nintzan
gauza orretxen egarriz,
ta sinistatu bear didazu
oiek diradela egiz.
Esnaratuta ere pentsatzen
egon naiz amaika aldiz,
ojala egin nuen ametsa
egi biurtuko balitz.

6/ Zuk bai ederki bete zendula
Jaungoikoaren dotriña,
emateko ain ziñan leiala
eta biotzez txit fiña.
Munduan etzan nagusituko
gorroto txar ta zikiña,
zu izan ziñan bezelakoak
guztiak izan bagiña.

DROGA

1/ Gazteria jarri zan
drogaren egarriz,
gerra egiten ari
zaizkigu pikardiz.
Oiek gure arraza
galdu naian dabiltz,
etzuten ekarriko
ona izan balitz.

2/ Gurasoak ekarri
zinduten mundura,
ainbeste kostatako
seme maite ura.
Nola etorriko zan
orduan burura
gaur zu ikusitzea
zabiltzan modura?

- 3/ Beldurgarriak dira
drogaren kalteak,
ondatzen ari dana
gure izateak.
Ezpadizkio ixten
norbaitek ateak,
pagatu bearko dik
gure lur maiteak.
- 4/ Alkarri besotikan
sartuaz arantza,
laister artuko dute
tisikoen antza.
Gero mozkorren gisa
egiñez balantza,
guraso zarrarentzat
ai zer esperantza!
- 5/ Gizona biurtzen da
otso ta azeri,
ez baitio artutzen
pozikan ezeri.
Euskalerra maitea,
nai zizun, bai, zuri,
beneno au bialdu
ziguenak guri...

- 6/ Gazte maiteak droga
ibilli tamaiñez,
benenoak barruan
egin gabe gaiñez.
Zer ekarri lezaken
pozaren ordaiñez,
eskarmentatu arte
ordea jakiñ ez.
- 7/ Engañatu artean
pixka bat debalde,
baiñan gero galanki
kobratu ta alde.
Erri maitatu ontan
zenbat gazte jende
ote dago jarria
gaur drogaren mende?
- 8/ Oso gogorak dira
guk ditugun penak,
sinistatu're ia
ezin litezkenak.
Etziran guretarrak
ekarri zutenak,
drogaren benenoa
zabaldu dutenak.

BI NAGUSI

1/ Mundu onek bi nagusi dauzka:

Amerika ta Rusia,
berentzat artu nai lutekenak
besterena dan guzia.

Ez badezute errespetatzen
inozenteen bizia,
zuentzat ere iritxiko da
Jainkoaren justizia.

2/ Oiek alkarri ez diote nai

beren bururik makurtu,
oi egin baño naiago dute
mundu guzia apurtu.

Gauz bat esan da bestea egin,
armatu eta armatu,
Hiroshima'n len gertatu zanak
ez ditu eskarmentatu.

3/ Beldurgarrizko arma zar oiek
dauzkatelako merio,
mundu guzia jarrita dago
kezkatu eta serio.
Eroren bati gogoak iñoiz
ala ematen badio,
ikusitzeko gaude amaika
geronen azken juizio.

4/ Ez dakit nora aldegin digun
sinismena ta fedeak,
aundikeri ta agindu-naiak
artu dizkio aurreak.
Baiñan etorri bear zaizkigu
oraindik ordu grabeak,
bere eskutik uzten bagaitu
zeru ta lurren Jabeak.

5/ Egi biurtzen ari zaizkigu
lengo esaera zarrak,
ez dago lasai pasatzerikan
dauzkagun egun pizarrak.
Mundua bonbak erreko dute,
lur joko dute izarrak,
dilubioak il zituen len,
aurki suak eta garrak.

6/ Zakur aundiak ortxe dabiltza
al dana bildu ta bildu,
erri txikiak ondo zanpatu,
ia gureak egin du.
Ez ote leike mundu triste au
igualtxoago berdindu?
Baiñan ez dute ori egin nai
naiz Jaunak ala agindu.

7/ Gaurko munduak ez du maiteko
derriorrezko pakerik,
gizonak ezin lezake egin
danak lotzeko katerik.
Gure gaiñetik bada beste bat,
orretan ez izan dudik,
bestela etzan izango emen
udara eta negurik.

8/ Pentsatu zuten ezkeroztikan
illargiraiño joatea,
zenbat millaka milloi ote da
alper-alperrik botea?
Illargitikan Martera zuten
urrengo beren kolpea,
baiñan ikusten ez dan Norbaitek
itxi zioten atea.

9/ Gizon azkarrak gauza aundiak
naiz eduki ikasita,
alare ez dute an aginduko,
egon ditezke etsita.
Igoko dira, bai jetxi ere,
an ezin dira bizi-ta,
zeruan sartu liteke baiña
lurrean irabazita.

GURE MENDI MAITEAK

- 1/ Euskalerriko mendiak
len ziran zoragarriak,
pago ta gaztañadiak.
Aien azpian perretxikoak,
unto ta ziza oriak;
larrean bei ta ardiak,
beorrak eta zaldiak,
gaur falta dira erdiak.

- 2/ Oraindik ere Ronkal'en
zer arboldegiak dauden,
zoratzen egon giñaden.
Ango beor da ardi-mordoak
guk e bagenitun emen,
Azketan eta Adarren,
piñua sartu baiño len,
gaur ez dakit nun diraden.

3/ Igotzen giñan mendira,
usai gozoen erdira,
edertasunen kabira.
Orain piñuak galduta dauka
lengo artzaien segira;
aiek zerutik begira
len utzi zuten tokira,
negarrez egongo dira.

4/ Ustu ziran baserriak,
aitonen bizi-tokiak,
guraso zarren kabiak.
Orain kaletik burua altxa ta
zer ikusten du begiak?
Utzi genitun mendiak,
lenago ziran garbiak,
tapatu ditu sasiak.

5/ Jeikiko ziran goizian,
eguna argitutzian,
argi-ezkillak jotzian.
Leku osasungarri aietan
gizon pizkorrak bazian;
gero ordea sartzian
kaleko zulo beltzian,
zer naigabe biotzian!

6/ Len kalearen egarriz
ta orain ostera berriz
lengo tokien inbiriz,
or artzen giñun aize sanoaz,
eguzkia ta illargiz.
Oroituz ain toki garbiz,
esan det amaika aldiz:
«Ai mendian bizi banintz!»

7/ Ondo pentsatzen jarrita,
orain nago igarrita,
baiñan alper-alperri-ta.¹
Emen besterik ez det ikusten
tximinia ta fabrika,
bizimodua korrika,
danak alkarri arrika,
maldizio ta errita.

¹ Alperri-ta: alperrik da.

ARRANTZALEAK

1/ Gure itxas-gizonak
dabiltza serio,
ez baitu arrazoiak
batere balio.

Pasatzen ari dira
beren elorrio,
prantzes agintariak
dirala merio.

2/ Itxasoa danentzat
naiz egin Jainkoak,
bakoitzak beretzako
nai dute bekoak.

Berak egin legeak
beren gustokoak,
eman ziotelako
batzuei gogoak.

- 3/ Alkar errespetatu
bear da lenbizi,
baiñan ori etzuten
batzuek ikasi.
Itxasoan etsaia
jartzean nagusi,
arrantzalea lasai
ez liteke bizi.
- 4/ Gauzak ari dirade
geiegi justutzen,
orregatik dijoa
mundua estutzen.
«Nik nai detena egin,
zu ibilli zuzen»,
alkar maitatutzea
ondo bazartu zen.
- 5/ Ez al dute prantzesak
oraindik ikusi
gureak dituztela
len iru probintzi?
Mugak errespetatzen
bear bada ikasi,
obe luteke berak
astea lenbizi.

6/ Berak egiten dute
justizi osoa,
mugatikan aurrera
emanaz pausoa.
Lenago legorra ta
orain itxasoa,
oiek beti berentzat
mokadu goxoa.

7/ Legeak jartzen dira
makiña bat klase,
oiek oituak daude
gozatzen olaxe,
inbiria biurtu
baitzaiote gose,
ta orain oiek iñork
ezin ditu ase.

8/ Etorri ziranean
gerraren igasi,
emen laguntza gabe
etzituzten utzi.
Xuxpertz diranean
oinbeste pantesi,
oiek beste Hitler bat
luteke merezi.

GAURKO MUNDUA

- 1/ Lagun zar batek eskatu zidan
jartzeko bertso berriak,
zer tankeretan dagon mundua
jakin dezala erriak.
Ez badituzte bide zuzenak
artutzen agintariak,
bizi geranok ikusitzeko
gaude ixtillu gorriak.

- 2/ Beldurgarrizko arma zar oien
kezketan gaude jarriak,
lengoak asko ez dituztela
segi egiten berriak.
Zer pentsatua badaukazute,
munduko agintariak,
zuen errua paga ez dezan
kulpa gabeko erriak.

3/ Sekulan baiño gogorrago gaur
arma berriak sortutzen,
naiz len ikusi Hiroshima'ko
erri maitea urtutzen.
Ez badigute bi aundi oiek
bururikan makurtutzen,
ikusiko da laister mundua
erre ta auts biurtutzen.

4/ «Pakeagatik egiten ditut»
esateko eztute lotsik,
al baluteke mendeko danak
ilko lituzteke pozik,
ez dutelako erlijiorik,
anima eta biotzik;
ez dediela geiago gerta,
Jauna, orrelako gauzik.

5/ Aurten umeen Jauna artzea
ikusia naiz Lasarte'n,
begira jarri ta nere gisa
aritu nintzan esaten:
Biarko gizon bear dutenak
umeak dirade aurten,
mingarria da pentsatutzea
zer etorkizun daukaten.

- 6/ Judioaren eskola dute:
gutxi zabaldu beretik,
besterenetik berak bai artu
eta al bada danetik.
Urte askoan bizitu dira
bestek eindako lanetik,
apartatuta bizi baitira
Jaungoikoaren bidetik.
- 7/ Urte ederrak pasa dituzte
bestek eindakoa janaz,
lenago larri zebillenari
beldurra sartuta armaz;
derriorrean kendutakoa
«Au gurea da» esanaz,
ia burrukan asian dabiltz
Luzifer eta Satanas.
- 8/ Badakizute gure Jainkoak
eman zigula danetik,
bear zan gauza ateratzeko
Ark egin zuen lurretik,
guztiok ondo bizi gindezen
geuk egindako lanetik;
baiñan munduan txartuta gaude,
iñork ez du nai onetik.

9/ Gaizki egiten ari diranik
atera gabe kontua,
danok iltzeko egiten jarrai
alako armamentua.
Gizonak il da etxeak erre,
oi al da adelantua?
Ara zertara iritxi zaigun
gizonaren talentua.

ARANTZAZU'KO AMARI

(Lasarte'ko Zumaburu parrokian, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren egunean, 1985'ean, kantatuak.)

- 1/ Nun degu maitasuna
garai batekoa?
Gipuzkoa maitea,
zaude gaixotua.
Erri onek falta du
zeiñek gozatua,
lagun zaiguzu, Ama
Arantzazu'koa.

- 2/ Nola daukagun gaixo
Euskalerra dana,
gizonen gorrotoak
egin duen lana,
berriz ere bagatoz
eskean Zugana,
gaitz au sendatzen lagun
egiguzu, Ama.

3/ Amak laguntzarikan
ez du ukatuko,
ez ote gera onak
izaten oituko?
Danok pixkabanaka
gera bukatuko,
izena besterikan
ez da geratuko.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK


1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya. (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^o Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^o Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*. (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^o Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).

30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echegaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz Bertsolaria. (*Aitua*).
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).

- 79-80-81. *A. Zabala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabea. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-sembleak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari. (*Aitua*).
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak. (*Aitua*).
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapiirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).

131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.

168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan (II).
184. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (I).
185. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (II).
186. *A. Zavala*: Neska-Mutillen arteko bertsoak.
187. *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188. *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
189. *Ataño*: Eltzaorra.
190. *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.



AUSPOA
LIBURUTEGIA